

Olaia Inziarte
***"Pribilegioa da
 emozioekin
 konektatzeko
 indarra
 izatea"***



16-20. orrialdeak

#2.911 | 2025 / 03 / 30 | 4 €



***Ikastetxeak
 fusionatzea,
 areagotuko den
 politika?***

26 | HEZKUNTZA



2025 udaberria

**Bizi Baratztea Orriaren
 1. zenbakia**

polinizazioa?



LARRUN #305
 Espainiako Guardia
 Zibilaren historia bat

Sarean eduki guztiak irekita **zuri esker**

Lagundu sare
libreari eusten:

argia.eus/eginargiakoa

 **ARGIA**

**Euskararentzat estrategikoa
delako.** Zapaldutako
hizkuntzek ez dute oztopo
gehiago behar. Euskaldun
guztiengana iritsi behar dugu.



Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | MATERIALISMO
HISTERIKOA
- 07 | EZ HANKA EZ BURU


AZALEKO ARGAZKIA: **DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA**

Iritziak

- 21 | ASIER BLAS
- 22 | TERE MALDONADO
- 23 | ITZIAR MORENO
- 23 | EDU ZELAIETA
- 24 | ANUNTXI ARANA

Finkoak

- 38 | GORPUTZ HOTSAK
- 40 | KOMUNITATEA
- 41 | DENBORAREN MAKINA
- 42 | BIZI BARATZEA
- 50 | DENBORA-PASAK
- 51 | KULTUR-KRITIKAK
- 54 | EZETZ ASTEA ONDO BUKATU

SAILEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK: **CLIPART COURTESY FCIT**


12 | DESERAIAKI DEZAGUN GERRA PROPAGANDA

Segurtasunaren izenean, Europako agintariek dirutza gastatu nahi dute armetan. Horretarako, gerrarako "pedagogia" ezartzen ari direla dio Urko Apaolazak Net Hurbil honetan, eta historian atzera jo du irakasgaiak ateratzeko, Ingalaterrako industria iraultza garaia.

Elkarrizketak eta erreportajeak

16 | PERTSONAIA | OLAIA INZIARTE

**"Nire izateko manera
nire ardura da,
baina ez nire kulpa"**

Ametz Aranguren

26 | HEZKUNTZA | IKASTETXEEN FUSIOA

**Nola batu bi hezkuntza
komunitate...**

Albo-kalte gutxien eraginez

Mikel Garcia

32 | EKONOMIA | BIHARAMUNEN LANTEGIA

**Zer ikertu herritarrek
erabakitzen dute**

Julen Ugartemendia

35 | INAZIOARTEA | MITROVICAKO ZUBIA

**Bi komunitateren
arteko haustura**

Ibai Treviño

46 | KULTURA | MITROVICAKO ZUBIA

**Zertaz ari garen ezer
gertatzen ez denean,
edo hiru idazle errealista**

Larraitx Fagundez

48 | KULTURA

Kresalezko amodio birtuala

Julen Azpitarte

ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:


**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

**Gobierno
de Navarra**  **Nafarroako
Gobernua**

Jabetza

Komunikazio Biziagoa
S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea

Erredakzioa

Axiar Lopez, Eneko Imaz, Eneritz Arzallus,
Estitxu Eizaguirre, Gorka Peñagarikano,
Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner,
Lander Arbelaiz, Leire Artola,
Manex Moreno, Mikel Garcia,
Onintza Irureta, Unai Lomana,
Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

Diseinua

Lander Gonzalez, Maitane Gartzandia

Argazkilaria

Dani Blanco

Produktzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

Administrazioa

Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde

Salmenta

Karlos Olasolo, Pello Basurto

Banaketa

Olatz Korta

Azoka

Mikel Olabide

Idazkaritza

Ane Gaztelumendi, Aloña Sorraluze,
Bego Zuza

Web garapena

Asier Iturralde

Informatika

Iametzta interaktiboa, S.L.

Lege gordailua: SS 837-2012

ISSN: 0213-909X

Batzorde parekidea: 72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoak

komertzial@argia.eus

komunitatea@argia.eus

Telefonia

943371545

Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

Nafarroa

Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,
31001 Iruñea

Ametzagaña taldeko kidea da ARGIA
honako enprekin batera:


antza
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA


iametzta

ADUR software
productions

Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu,
zabaltu eta argitaratu ditzakezu, gure egiletza
aitortu eta baldintza beretan eginez gero.

Lizentzia hau baliagarria da testuentzat
eta, argazkien eta ilustrazioen kasuan,
ARGIAren sinadura daramatenentzat soilik.

Aldizkari honek ekoedizioaren
baldintzak betetzen ditu.

Aztarna ekologikoa:



bDAP202506489


OLATUKOOP

Ekonomia sozial eraldatzailearen
sareko kide gara.

Etsaiak eraikitzen

Hungariako Parlamentuak debekatu ditu "sexu-aldaketa edo homosexualitatea sustatzen duten bilerak", baita horietan parte hartzea ere. Adingabeen garapen "egokiaren" izenean, aurpegia ezagutzeko softwareak erabiltzeko aukera eman diote Poliziari, manifestazioetan parte hartuko dutenak identifikatu eta automatikoki 500 euro arteko isunak jartzeko. 2018an, Orbanen gobernuak 35.000 zaintza-kamera jarri zituen espazio publikoan. LGTBQA+ mugimenduaren eskubideen aldeko adierazpen publiko oro debekatu dute. Faxismo berriaren errezeta zaharra da: iritzi publikoa distraitzeko erraz identifikatzeko moduko etsaiak sortzea —egun, feministak, lgtb pertsonak eta Bussines Class-ean iristen ez den migratzaile oro—, milioika (hungariar) krisi larrian bizi direlarik. Hori Europan ari da gertatzen. Astakeria honi ez-ikusiarera egin dio EBk, migratzaileen eskubideen aurkako erasoekin egin duen bezalaxe Italian. Beste behin, argi utzi dute giza eskubideak ez direla existitzen, horiek bermatuko dituenik ez baitago.

📹 Erabakiaren aurka protesta egin zuen oposizioak parlamentuan. **B. BODNAR / AP**

✍️ **AXIER LOPEZ**







DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

Pasaiako segadan hildakoak estatu indarkeriaren biktima gisa aitortu ditu Jaurlaritzak

GORKA PEÑAGARIKANO GOIKOETXEA

Espainiako Poliziak duela 41 urteko martxoaren 22an hil zituen tiroka Dionisio Aizpuru, Pedro Mari Isart, Jose Mari Izura eta Rafael Delas gazteak, Komando Autonomo Antikapitalistetako kideak.

Eusko Jaurlaritzaren Balorazio Batzordearen dokumentazio bat argitara eman du eskusiban Pasaiako segadan hildakoen memoriaren aldeko kolektiboak: Jaurlaritzak laster aitortuko ditu hildakoak estatu indarkeriaren motibazio politikoko biktima gisa.

Jaurlaritzaren txostenak honako hau jasotzen du, besteak beste. "Autopsiak hortxe daude; lau gazte zuloz josita, eta frogarik ez dago lau gazteek armak erabili zituztela esateko –kontakizun ofizialak hala dio, bi aldeen arteko tiroketa egon zela–; polizia-agintariak behin eta berriz uko egin diote esateari nortzuek agindu edo parte hartu zuten gertakari haietan".

Azken horri lotuta, Jaurlaritzaren batzorde horrek dio ikerketa "eskasa" izan zela, informazioa "berandutzea, oztopatzea eta ezkutatzea" lortu zela, eta, hortaz, "ikerketa judiziala bultzatzeko jarrera proaktiborik" ez zela egon: "Inork inolako ikerketa eginbiderik proposatzen bazuen agenteak identifikatzeko edo gertakari haietan

Duela urte bi, sarraskian parte hartutako Espainiako polizia agenteak identifikatzeko saioak egin zituzten

gertatu zena argitzeko, fiskaltzak, ia-ia beti, aurka egin du".

Gauzak horrela, nahitara burututako hilketaz hitz egiten du Jaurlaritzaren txostenak: "Gertakarietatik ondoriozta daiteke lau pertsona hil zirela Poliziak alde aurretik nahita edo planifikatuta egindako erasoaren ondorioz, eta bizia nahita kendu zitzaiela. Garondan tiroa duten hiru biktima izateak, hurbiletik egindako tiroen ezaugarriak direla eta, kezka areagotzen du zentzu horretan".

Auzia ez da erabat geldirik egon azken urteotan. Esaterako, duela urte bi, Donostiako epaitegian, sarraskian parte hartutako Espainiako polizia agenteak identifikatzeko saioak egin zituzten. Komando Autonomoetako lau kideen hilketekin lotuta egon zitezkeen hiru agente ohi egon ziren saioetan, eta ez ziren azaldu beste lau. ●

Rosa Zarra Ertzaintzaren pilotakadak hil zuen

XABIER LETONA BITERI

Rosa Zarra Ertzaintzaren pilotakada baten ondorioz hil zela da Eusko Jaurlaritzako Poliziaren Biktimen Balorazio Batzordeak atera duen ondorioa. Orain arte, Ertzaintzak beti egin dio uko bertsio horri, eta Rosa Zarra berak zuen gaixotasunaren ondorioz hil zela esan zuen garai hartako Segurtasun sailburu Juan Mari Atutxak.

Zarraren familia 2023ko urtarrilean bildu zen balorazio batzordearekin eta martxoaren erdian izan du haren erantzuna: Rosa Zarra gomazko pilotak sa-belean eragindako zaurien ondorioz hil zen. 1995eko ekainaren 30ean hil zen, Donostiako Ospitalean, zortzi egun ondoren. 58 urte zituen.

Maiatzaren 21ean Joxi Lasa eta Jo-xean Zabalaen gorpuak iritsi ziren Tolosara eta ehorzketaren unean Ertzaintzak oso karga bortitza egin zuen han bildutakoen aurka. Hura salatzeke, ezker abertzaletik antolatutako Euskal Herria Askatu ekimenak bilkura bat deitu zuen Usoaren plazan, astero ETak bahituriko José María Aldaya enpresariaren askatasuna eskatzen zutenaren inguruan. Maider Irazusta Rosa Zarraren alabak *Berria*-n kontatu duenez – orduan 22 urte zituen –, egun hartan euren aita, Xabier Irazusta, Euskal Herria Askatutako deitutako manifestaziora joan zen, eta bera eta ama kafe bat hartzera. Ondoren joan ziren manifestazioaren amaierara, aitarekin elkartzera. Bitartean, Ertzaintza Euskal Herria Askatuko ekitaldian bildutakoei oldartu zitzairen.

Maider Irazustak dioenez, erabakiak luze jo du eta orain familia ezustean harrapatu du, baina etxean oso pozik daude aitortzarekin, hori baitzen behar zutena. Mina agertu du, halaber, urte hauetan guztietan haiengana Eusko Jaurlaritzako inor ez zaielako agertu ezer adieraztera, ezta Donostiako alkate Eneko Goia ere, eta hori "are eta mingarriagoa da", hura ezagun dutelako. Familiak Eusko Jaurlaritzaren aitortza ekitaldiren bat ere nahiko luke, nahiz eta ez dakiten gertatuko den. ●

MELOI SALTZAILEA

Otsoak



JUNE FERNANDEZ

Zer esango zenioke Palestinako aktibista bati aurrez aurre izango bazenu? Ni mutu geratu nintzen Iman Hammouri nire herrian bertan aurkeztu zidatenean. Eskerrak andre nagusi bat gerturatu zitzaigula eta solaskide roletik itzultzailearenera pasa nintzela.

Palestinako Popular Art Centre-ko (Ramallah) zuzendaria da Hammouri. Bizkaiko hainbat herri bisitatu ditu martxoan, Larrabetzu tartean. Elkartasun ekitaldian herriko dantzariak, abesbatzako kideak, bertsolariak eta artistek egin zioten harrera. Hammourik bere hitzaldian kulturaren balioa aldarrikatu zuen eta Palestinako artisten saretzearen berri eman zuen.

Celeste Agüero musikari eta poesia xuxurlari getxotzar-argentinarra elkarrizketatu berri nuen ARGIArako. Azpimarratu zuen artea historiaren aurretik doala, gure burua ez iluntzen laguntzen duela, baita ilusioa berpizten ere, gauzak aldatu ditzakegula sinesten jarrai dezagun. Antzeko mezua bota zuen Hammourik.

Gugana hurbildu zen andreak eskatu zidan Imaneri itzultzeko ez dezatela fedea galdu. Sekula ez, erantzun zion palestinarrak. Erljioaz ari zen Larrabetzuko andrea, baina Hammourik argi dauka artea ere badela itxaropenerako giltzarria.

Berriki, Duero ibaitik gora otsoa berriz ehizatzea onartu du Espainiako Kongresuak PP, Vox, Junts eta EAJren botoekin. Instagrameko *influencer* begano bat ikusi dudanean malko artean horren berri ematen, nire lehenengo bultzakada izan da "Lehenengo Munduko" kezka hori aldeztatzea Palestinako genozidioarekin. Berehala zuzendu dut nire burua: ez da kasualitatea otsoaren genozidioa berpiztu duten alderdi politikoak izatea sionismoaren babesleak.

Jule Goikoetxeak esan ohi du premiazkoa dela *homo sapiens* erdigunean jartzen duen pentsamoldetik kosmobisio ekozentriko batera igarotzea. Alabaina, erdigunean dagoen *homo sapiens* hori ez da Hammouri bat, Abascal edota Pradales bat baizik, haren garapena gainontzeko pertsonen, herrien eta espezieen suntsiketan oinarritzen duena. Baita haren artea ere, izan zezenketa edo Urdaibaiko Guggenheim proiektua.

Eskutik doaz heteropatriarkatua, kolonialismoa, neoliberalismoa eta ekoizidua. Horiek benetako otsoak direla esango banu, otsoak irainduko nituzke eta, berriro ere, fokua galdu. Argi dago haiek direla ehiztari amorratuak. Eta gu? ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com



Agur buzoiei



NAROA ELORTZA
GORROTXATEGI

Danimarkatik iritsi zaigu berria: 400 urtez estatuak eskainitako zerbitzua etengo du PostNord enpresa publikoak, eta eskutitzak banatzeari utziko dio 2025 urtea amaitzean. Gobernuak adierazi du enpresa publikoak negozioa paketeak banatzera bideratuko duela. Bi arrazoi eman ditu horretarako: batetik, eskutitzen banaketaren bolumenak %90eko jaitsiera izan duela 2000. urtean 1.400 milioi karta izatetik, 2024. urtean 200 milioi izatera pasa da; bestetik, danimarkarrek sarean egindako erosketen banaketak hartu duen pisua. Erpin askoko gaia, zalantzarik gabe.

Erabaki pisutsu horren ondorioz, atzean geldituko dira kaleetako buzoi gorriak, zigiluak, Gabonetako postalak, eskuz idatzitako maitasun eskutitzak... baita isunak ordaintzeko zertifikatutako kartak ere. Lizitazio bidez esleituko omen dute zerbitzua, baina, berriz ere, zerbitzu publikoen pribatizazioaren aurrean gaude. Gure herriko kaleetatik telefono kabinak desagertu ziren gisara, desagertuko dira Danimarkako buzoi gorriak. Geurek ere, ez dute gehiegi iraungo.

Danimarkako Gobernuak adierazi du eskutitzak banatzea jada ez dela errentagarria. Zerbitzu publikoa errentagarria izan behar den ala ez, eztabaida interesgarria dugu hor. Argi dago funtzio publikoko langile eta erakunde bideragarritasuna bilatu behar dela, zerbitzu publikoak eraginkorrak izan daitezen baliabideak bideratu behar direla. Baina ongizate eta zerbitzu sozialei ikuspegi ekonomiko hutsetik begiratzeko badiugu, gizarteko %90aren beharrrak alde batera uzten ariko gara.

Ezin artikuluari amaiera eman, Correo-seko langileek kalitatezko zerbitzu publikoaren alde egindako elkarretartzeak eta Internet bidez egindako erosketen zorakeria aipatu gabe. Kontsumo ereduak langile eta zerbitzu publikoengan ere eragiten duelako, kontsumi degun lekukoa, lekuan. ●

Brandt eta Gorvatxov, non zaudete?

XABIER LETONA BITERI

Hitlerren armadak milioika sobietarren heriotza ekarri zuen Bigarren Mundu Gerran Sobiet Batasuna inbaditu zuenean. Gerra amaituta, Iosif Stalinen obsesioa zen Alemania eta Errusia artean babes herrialde-lerro bat osatzea; horra, besteak beste, Varsoviako Itunaren sorrera arrazoietakoa bat.

Bigarren Mundu Gerran AEBetan askok uste zuen Alemaniaren aurkako gerraren ondoren Sobiet Batasunaren aurkakoa etorriko zela. Eta Gerra Hotza etorri zen. Denbora horretan asko izan ziren Sobiet Batasunari eraso egiteko AEBek aurreikusitako planak. 1949an, adibidez, Dropshot Operazioak sobietarren 100 hiri 300 bonba atomikoz eraso egitea aurreikusten zuen. Gerra Hotza AEBek eta Mendebaldeak irabazi zuten, baina urte luze horietan gure mundua hainbatetan izan zen desagertzekotan gerra nuklearraren ondorioz. Horietako larrienetakoa izan zen 1962an Kubako “misilen krisia”.

1990ean Alemania bien batasuna eman zenean, Sobiet Batasuneko mandatarari nagusi Mikhail Gorbaxovek AEBen eta Mendebaldeko potentzien honako konpromisoa jaso zuen: NATO ez zen gehiago zabalduko ekialdera. Gezurra izan zen eta ondorengo hamarkadetan Errusiaren muga luze-zabalean barreiatu da NATO, Finlandiatik Turkiaraino. Ez da oso gaitza irudikatzea zein litzatekeen AEBetako mandatarien egungo erantzuna, Errusiak gaur egun Kanadan edo Mexikon gerra tresneria zabalduko balu.

Gerra Hotzean Sobiet Batasunaren indarra eta mehatxua haizatu zuten AEBek, jakinda sobietarrek ez zutela Europa edo AEBak inbaditzeko inongo asmorik. Sobietarrek ez zuten halako indarririk eta nahikoa zuten euren estatusnei aurre egitearekin. Baina arma lasterketa bidez ez zioten utzi barne mailan indartzen eta 1980ko hamarkadan sobietarrak behartu zituzten euren Produktu Nazional Gordinarenean %17 xahutzera gastu militarrean, AEBek %6-7 gastatzen zutenean.

Berdintsu gertatzen da Errusiarekin gaur egun. Bai, Ukraina inbaditu zuen, bidegabe gainera eta inongo justifikaziorik gabe, baina NATOren hamarkadetako probokazioen ondoren. Errusia Europako NATOko herrialdeak baino askoz ahulagoa da ekonomikoki eta militarki, eta orain larri dabil Ukrainako Gerratik nola duin ateratu asmatu guran.

AEBek sobietarrekin nola, orain Europar Batasunak astintzen du Errusiaren mamua arma lasterketa berri bat bultzatzeko. Zein helbururekin? Betikoa: EBren zailtasun ekonomiko garaietan, erruduna bilatu eta etsaiaren bidez herritarrak kohesionatu; gizarteentzat egon litekeen industria mota arriskutsuenaren bidez –defentsa– ekonomia hauspotu; eta, besteak beste, Bigarren Mundu Gerraren ondorengo europar ongizate estatua birrintzen jarraitzea.

Billy Brandt kantziler sozialdemokrata alemanak *Ostpolitik* bultzatu zuen 1970eko hamarkadan, Europako ekialdeko herrialde sozialistekin harremana estutzeko, eta Mikhail Gorvatxov buruzagi sobietarrak Europako etxe batuarekin amestu zuen. Munduaren ordena berri bat eraikitzen ari zenean, EBko buruzagiek hobe lukete erreferentzi horietan oinarritzea Gerra Hotz berri batean baino. ●



660

milioi euro ordaindu beharko dizkio Greenpeacek Energy Transfer Partners petrolio konpainiari, Dakota Access oliobidearen kontrako protestetan "jokabide kriminala" izateagatik eta "difamazioagatik". Helburua "protesta baketsurako eskubidea deuseztatzea" da, dio Greenpeacek.

21,3

milioi euro gastatu zituen Osasunbideak 2018-2022 artean itxaron zerrendak gutxitzeko, baina itxaron zerrendak %29 handitu ziren. 2019tik 2024ra ia bikoiztu egin da zentro pribatuetara eta itunpeko zentroetara bideratutako gastua.

2

langile hil dira martxoaren 17an, Buñuelen (makina batean harrapatuta) eta Arratzun (garabiak goi-tentsioko linea bat ukituta). Astekari hau ixteko unean, martxoaren 24an, 14 dira aurten Hego Euskal Herrian lanean hildakoak, LABen arabera.

"Badago euskararen inguruko kezka edo hausnarketa ere; hori da benetan dokumentalean erakutsiko dena"

LURDES ETXEZARRETA

AEKren Artezkaritza Kontseiluko kidea

apirilaren 25era bitartean crowdfunding kanpaina bat abiatu dute, Korrikari buruzko dokumentala finantzatzeko.

BERRIA (2025-03-18)



"GURE AGINTARIEI ESKATZEN DIEGU BAKEAREN ALDE LAN EGIN DEZATELA ETA EZ ARMA ENPRESEN ALDE"

Europako hainbat intelektualek bakearen eta armagabetzearen aldeko manifestua idatzi dute.

2025-03-18

"D eredua bultzatzen eta ikastolen nortasuna zabaltzen ahaleginduko naiz"

OIER SANJURJO

Nafarroako Ikastolen Elkarteak lehendakari berria du. Sanjurjok hartu dio lekukoa Elena Zabaleta Andresenari.

EUSKALERRIA IRRATIA (2025-03-20)



%2ko zapalkuntza



DIANA FRANCO EGUREN

Orain dela 20 bat urte, berrikuntza-
ren inguruan master bat egin nuen.
Bertaraturiko gonbidatu batek
esan zigun gizakion historian be-
rrikuntza teknologikoaren eragile handiena
gerra izan zela. Gerra, halaber, eragile han-
dia da botere harremanen berrikuntzan.

Berrikuntzaz ari garenean, pertzepzio
aldaketez ari gara, eta pertzepzio aldake-
ta horiek dakartzaten jokabide aldaketez.
Lan horretan, pertzepzioaren aldaketen
lorpenean, eraginkorra da indarkeria. Bai-
na indarkeriaz bultzatzen diren aldaketek
biziraupe senarekin dute lotura, ez bizitza
on bat izateko eraiki behar diren harreman
eta giroarekin. Indarkeriaz bultzaturiko al-
daketak zapalkuntzatik eratorritako berri-
kuntzak dakartza.

Barne-produktu gordinaren %2a gerran
ez inbertitzeak kalteak ekarriko dizkiela
adierazi die Trumpek NATO osatzen duten
herrialdeei. Europa alde batera utzita AEBek
Errusiarrekin egindako negoziazioek, Ukrai-
nako gerra tartean, botere geopolitikoaren be-
rrikuntzarako palanka eragin dute. Emaiza:
ReArm Europe plana. Europaren gerrareki-
ko kontaktetan biraketa erraldoia. Bizirau-
pen senak kolokan jarriko ote ditu bizitza
onak eraikitze aurrerapenak? Gai izan gai-
tezke gizakiok belaunaldi bakoitzean gailen-
duko den garaiko *bully* taldeen aurrean gure
zibilizazioak gerra barik bizitzeko?

Gizarte honen parte izanda, badakit in-
darkeria dagoela lanetan, familian, kalean...
Badakit baita ere gure bizitza onak indar-
kerian eraikiak izan direla neurri handi ba-
tean. Baina badira zenbait ahots eta eragile
errealitate hori eraldatzen, eguneroko kei-
nuen bidez, egitasmo txikien bidez, harre-
manak eta bizimoduak izateko moduen gai-
nean pertzepzioa aldatzen. Nik jarraitzen
ditudan asko European kokatzen dira. Ho-
rri lotuta, azkenadian ideia bat dut buruan
buelata: %2 horren benetako helburua ez
ote da izango europarren fokua aldatzea?
Gizatasunean eta elkarlanean barik, gure
denbora eta gaitasunak beldurrean eta ba-
naketan jartzeko? Gerrak forma ugari ditu,
eta modu askotan irabazi daiteke. ●

Eskolaz kanpoko jardueretatik at

MIKEL GARCIA IDIAKEZ

Eskolaz kanpoko jardueren es-
kaintza zabala egiten duten ikas-
tetxeen aldean, beste askok ez du
horretarako aukerarik; eta eskola be-
reko ikasleen artean ere, denek ezin
dute ekintzetan parte hartu, baliabi-
de ekonomikoek baldintzatuta. Esku
hartzeko dei egin diete instituzioei:
“Ba al dakizue zein garrantzitsua den
ume zaurgarriek ere jarduera haue-
tan parte hartzeko aukera izatea?”.

Gasteizko Judimendi eskolako
profesionalek gutuna bidali diete hi-
riko udalari, Arabako Foru Aldundia-
ri eta Eusko Jaurlaritzari, ikastetxeko
guraso elkarteek antolatzen dituzten
eskolaz kanpoko jardueretan ematen
den arrakala bikoitza azaleratuz.
Batetik, ekintza horien eskaintza za-
bala egiten duten eskola publikoe-
kin alderatuta, “beste askok zailtasun
ikaragarriak ditugu ekintza xume
batzuk eskaini ahal izateko”. Azken
finean, guraso elkarteak finantzatzen
dira gurasoen kuotetatik eta institu-
zio publikoen dirulaguntzetatik, eta
hainbat eskolatan jarduera batzuk
ezin dira eskaini ere egin, ez badute
nahikoa ikaslek izena ematen, fami-
liek ezin dutelako jarduera ordaindu.

Bestetik, eskola bakoitzaren ba-
rruan ere ematen da arrakala, bali-
abideak dituzten eta baliabide nahi-
korik ez duten (eta beraz, eskaintzen

diren jardueretan parte hartu ezin
duten) familietako umeen artean.

“Izan al duzue aukerarik aste-
buruetan eskola kirolaren barruan
egiten diren topaketa eta partiduak
ikusteko? Konturatu al zarete era-
kunde publikoen esku dagoen jar-
duera horietan parte hartzen duten
umeen profila zein den? Non daude
hor ez dauden ume guztiak? Zerga-
tik ez daude hor? Ba al dakizue zein
garrantzitsua den guztiontzat ume
zaurgarrienek ere jarduera hauetan
parte hartzeko aukera izatea?”, diote.

Izan ere, ekintza hauek “inpak-
tu oso esanguratsua” dute ikasleen
ikaskuntza prozesuan eta batez ere
hiriko kohesio sozialean: “Eskola
kirolean eta bestelako jardueretan
parte hartzen duten ikasleak eskola
ezberdinetako umeekin aritzen dira
astebururo, Gasteizko beste eskolak
eta hiriko txokoak ezagutzen dituzte,
euskara indartzen dute eta eskola or-
duetan landutakoa osatzen dute...”.
Baliabide ekonomiko nahikorik ez
duten ikasleak hortik kanpo uztea
segregatzailea dela eta instituzioei
arazoa konpontzea (ume guztiek par-
te hartzeko aukera bermatzea) dago-
kiela iritzi dio Judimendiko hezkun-
tza komunitateak, guraso elkarte-
en bidez eskola publikoak berak egiten
duen eskaintza den heinean. ●



FREPIK

“Euskal Herria ez dago salgai”

 DOS POR DOS

GASTEIZ / Euskal Herria Bizirik-ek deituta, inguru naturalaren “suntsiketaren” eta makroproiektuen “inposizioaren” aurka mobilizatu dira milaka lagun. 140 talde baino gehiagoren atxikimendua jaso du protestak. Enpresariak eta instituzioak “elkarren eskutik” doazela salatu dute “eredu ekonomiko hori betikotzera bidean”.



MOTZEAN

Israelek su etena apurtu zuen martxoaren 17an eta erasoak bata bestearen atzetik izan dira Palestinan. "Hasiera besterik ez" dela adierazi du gainera Benjamin Netanyahu lehen ministroak. Israelen genozidioa salatzeko protesta andana egin dituzte Euskal Herrian zehar.

"Su eten partzial" bat adostu dute Donald Trumpek eta Vladimir Putinek: 30 egunez, Moskuk ez dio erasorik egingo Ukrainako azpiegitura energetikoari. Ukrainak eta Errusiak 175na preso askatu beharko dituztela ere iragarri dute, baina ez noiz.

Arrazismoaren aurkako eguna kari, Baionan giza-katea osatu dute, aniztasuna, elkartasuna eta giza eskubideen alde; Bilbon "arrazakeria ez da eztabaidatzen, borrokatzen da" aldarrikatu dute; Donostian segurtasunari lotutako diskurtso arrazistak salatu dituzte.

Ikasle zapalkuntzak amaitzeko, hezkuntza sistema propioa aldarrikatu dute Hego Euskal Herriko hiriburuetan, Ikamak deitutako ikasle greban. "Ezinbestean" independentziazetik etorriko den eredu propioa, "publikoa eta komunitarioa" eskatu dute.

DESERAIKI DEZAGUN GERRA PROPAGANDA: EZ DA SEGURTASUNA, ARMAK DIRA

Defentsarako gastua handitzeko Europako herrialdeen apustuaren atzean, asko dago propagandatik, eta askoz gehiago interes ekonomikotik. Kontrakoa sinetsarazi diguten arren, XVIII. mendean Ingalaterran Industria Iraultza jaio zenean, armak eta gerra izan zituen oinarri, eta ez merkatu libre edo berrikuntza teknologiko baketsua, Priya Satia historialariak *Empire of guns* (Armen inperioa) liburuan erakutsi duen moduan. Segurtasunaren izenean industriari bultzada emateko tentazioaren aurrean, ispilu hori begiratu beharko genuke.

 URKO APAOLAZA AVILA

Inbertsioa erasorako baino defentsarako bada, ni lasai geratzen naiz". Baieztapen hori agian sinisgarri eta guzti egingo zitzaion martxoaren 11n Euskadi Irratia entzuten ari zenari. Baina Eusko Jaurlaritzako Industria sailburu Mikel Jauregik gurinarekin janarazi zigun mezua –Guau.eus atarian daukazu zintzilik audioa–, ez da batere xaloa. Gerra propaganda da. Edo hala dio gerra propagandari buruzko lehen manamenduak behintzat.

Anne Morelli historialari belgikarrak 2001. urtean argitaraturiko *Principes élémentaires de propagande de guerre* (Gerra propagandarako oinarritzko printzipioak) liburutxoan dator gerraren beharraz konbentzitzeko aipatu lehen argudio hori: "Ez dugu gerra nahi, defendatzen ari gara!". Morelliren

printzipioak oso ezagun egin ziren, garbi erakusten dutelako botereak zein erraz manipulatu dezakeen iritziz publikoa komunikabideak erabili. "Orrialdeotan Morellik azaltzen duen guztia egunero ari gara bizitzen, Ukrainako gerrarekin eta Palestinako zibilen masakre handiarekin", dio orain Rafael Poch kazetariak gaztelaniazko enegarren berrargitalpeneko hitzatzean.

Europako mandatari nagusien artean zabaltzen ari den diskurtsoa errepikatu baino ez du egin Jauregik. Europako Batzordeko presidente Ursula Von der Leyenek 800.000 milioi euroko berrarmatze plana aurkeztu du, "preparatuta egon gaitezen", eta Defentsa ministro ugarik jadanik eskatu dute euren aurrekontua handitzea, horretarako zorpetze muga kendu eta arau fiskalak aldatu behar

badira ere. "Putinen gerra Europaren kontrakoa da", esan du Alemaniako kantziler berri izango denak, Friedrich Merzek. Bigarren manamendua: egotziozu ardura etsai zitalari.

GERRA PEDAGOGIAZ SARTZEN DA

Europar Batasunean lau urtetan gastu militarra –utikan "defentsa", "segurtasun" eta bestelako eufemismoak– ia bikoizteak albo kalte sozialak izango dituela jakina da, *Net Hurbil*-en jadanik abisatu genuen (*Europak armak eroko ditu, zuri pentsioa kenduta*, 2.863 zk.) eta urtebete geroago, *Le Monde Diplomatique*-n antzeko zerbait esatera etorri zaizkigu Frédéric Lebaron eta Pierre Rimbert soziologoak, *L'Europe martiale, une bombe antisociale* (Europa martziala, bonba antisoziala) deituriko artikuluan.

WHO'S ABSENT?



Lehen Mundu Gerran soldaduak errekrutatzeko
britainiar gobernuak erabilitako propaganda kartela:
"Zein falta da? Zu zara?", dio mezuak. Utziko al diegu
gaur egungo mandatariei gauza bera galdetzen?

Is it you?



SEGURTASUNA Hitz horren izenean elkartu zituen Londresen Keir Starmer lehen ministro britainiarrak munduko mandatarari ugari 2025eko martxoaren 2an, AEBek Ukrainako gerrarekin izandako jarrera aldaketak akuilatuta. Soldaduak gerrara bidaltzeko herrialde "bolondresen" bila dabilta orain.

Lebaronek eta Rimbertek gogora ekarri dute *Le Monde*-k editorial batean esandakoa: gastu militarra handitzeak "sakrifizio mingarriak" suposatuko dituela eta, horren aurrean, iritsi dela garaia boto-emileen artean "pedagogia" egiteko. Frantziako Estatuan *pedagogia* hitza ezarri zen, besteak beste, 1980ko desindustrializazio garaian edo 2005ean Europar Konstituzioari baietz esateko. Orain, "gerraren pedagogia" ezarriko dute, "eta ez da merke aterako", dio soziologo pareak.

Nola egiten da hori? Adibidez maitekiro, gure sailburu jaunak egin bezala, irratiko entzuleari belarrira xuxurlatzen egungo gerrak "digitalak" direla. Akaso misil balistikoei mikrotxipak daramatzate soilik tripetan? Edo mehatxuka, NATOko idazkari nagusi Mark Rutte bezala: "Ez badute behar militarretara BPGaren %2 baino askoz diru gehiago bideratzen, hemendik lauzpabost urte barru errusiarra ikasi beharko dute".

Azken bi mendeetan europar liberalismoak zabaltu duen kontakizunak dio, librekanbioa dela inperioen arteko gatazkak saihesteko modurik onena. Montesquieu berak ere *la paix* hartu zuen ahotan: bakea lortzea omen da merkata-

XVIII. eta XIX. mendeetan Erresuma Batuak armak milioika esportatu ahal izan zituen mundura, berdin esklabotzarako nola gerretarako

ritzaren "ondorio naturala". Baina halako baieztapenak ebidentzia historikoak kontuan izan gabe egiten direla nabarmendu dute Lebaronek eta Rimbertek: "Munduko historiak argi erakutsi du inperialismoaren -militarra zein ideologiko-erlijiosoa- eta globalizazio kapitalistaren arteko lotura", eta hori guztia ez zela preseski eraiki modu baketsuan. Ai *la paix* ditzosozkoa, zenbat gerra egin dira bere izenean?

BIRMINGHAMEN HASI ZEN ENGAINUA

Inperioetan handiena Erresuma Batuak eraiki zuen, eta kasu paradigmatico hori

aztertu du Priya Satia historialariak. 2018an idatzi eta hedabide nagusien artean kritika oso onak izandako *Empire of guns* (Armen inperioa) liburuan, Industria Iraultzari buruz orain arte iritsi zaigun historia mitifikatuaren oso bes-telako ikuspegia dakar.

Ingalaterrako ehungintza tailerre-tako aurrerapenak eta lurrin-makina bezalako asmakizunek bultzaturiko prozesu baketsu baten gisan irudikatu dugu Lehen Industria Iraultza. Baina Satiak erakutsi duenez, gerra inperialisten altzoan egindako kontratu militarrek bultzatu zuten industrializazio hori: "Erresuma Batua momentu oro egon zen gerran, edo gerrarako prestatzen, edo gerratik errekupepatzen. Bake garaietan ere, jendeak egintzat jotzen zuen gerra berehala etorriko zela", dio historialariak.

Londresko Dorretik, Ordnance Office (Artilleria Bulegoa) arduratzen zen kontratu horiek banan-banan egiteaz, eta Birminghamgo tailerrak izan ziren onuradun nagusiak. Hiri hartan eskulangile bakoitzak bazuen bere zeregina: honek mosketoientzako giltzak egiten zituen, beste honek kanoiak limatu, han-

goak hurritz-kulatak moldatu... Inork ez zuen zuzenean armarik egiten, baina denek parte hartzen zuten industria militar erraldoi hartan. Horrela, XVIII. eta XIX. mendeetan Erresuma Batuk armak milioika esportatu ahal izan zituen mundura, berdin esklabotzarako nola gerretarako. Adibidez, Napoleonen kontrako kanpaina militarretan, 1803 eta 1815 artean, hiru milioi Moskete ekoizten ziren.

“Britainiar estatua hasieratik inplikatu zen armagintza industriaren garapen teknologikoarekin”, dio Satiak. Hainbestearino inplikatu, ezen arma ekoizleak estatuaren menpeko bihurtu ziren. Orduan, armagintza auzi “publiko-pribatu” bihurtu zen eta gobernuak fiskalitatea aldatu zuen hori guztia ordaindu ahal izateko.

HAMARGARREN MANAMENDUA: EDO NIREKIN, EDO NIRE KONTRA

XXI. mendeko “gerra keynesianismo” berria erretroisore horren bidez ikus dezakegu agian –Rolls Royce autogintza enpresak edo BAE Systems konpainiak, milioi askotako kontratuak sinatu dituzte Erresuma Batuko Defentsa ministerioarekin–.

Baina badago historiako beste ispilu bat kasu askorik egiten ez zaiona: antimilitarismoarena. Industria Iraultzaren garaian kuakero ingelesek arma ekoizpen masiboa zalantzan jarri zuten, euren erlijio eta moralaren kontra zegoe-lako. Ondorioz, armen trafiko globala arautzeko lehen saiakerak egin ziren herrialde hartan, Satiak bere liburuan nabarmendu duenez.

Kuakeroen postura hori aitzindaria izan zen. Hurrengo mendeetan militarismoaren kontrako eta armagabetearen aldeko mugimenduak susper-tu ziren han eta hemen. Hala, 1901ean



TAILERRAK Birminghamen armak modu deszentralizatuan produzitu zituzten milioika XVIII. mendetik aurrera, estatuak zuzenean kontratuak eginda. Irudian, 1917an Arma Laburren Konpainia.

Industria Iraultzaren garaian kuakero ingelesek arma ekoizpen masiboa zalantzan jarri zuten, euren erlijio eta moralaren kontra zegoe-lako

Glasgowen egin zen Bakearen Kongresu Unibertsalean, ekintzaileek *pacifist* (bakegile) hitza erabili zuten aurrenekoz.

Langileen artean, berriz, klase kontzientziak piztu zuen antimilitarismoa.

Testuinguru horretan, Lehen Mundu Gerraren atarian, intelektual askok bakearen aldeko manifestua sinatu zuten. Gauza bera egin dute oraingo testuinguruan 3.000 intelektual inguruk, europar agintarien adierazpen belizistek aztoratuta. Baina kontuz! Hemen Morelliren gerrako propagandako hamargarren manamendua: gure printzipioak zalantzan jartzen dituen, traidorea da. Edo nirekin zaude, edo nire kontra. ●



Hernani 23 · 20004 Donostia

T. 943 420 624

zinkunegioptika.com



AHLEM



NIRE IZATEKO MANERA NIRE ARDURA DA, BAINA EZ NIRE KULPA



Hunkituta eta ilusioz egin dut Iruñetik Oronozerako bidea. Maite dut Olaia entzutea, baita hizketan ere. Herriko farmaziaren ondoan autoa utzi eta balkoitik agurtu naute hark eta bere zakur Arak. Grabagailua martxan jarri aurretik, bueltaxka egin dugu frontoira eta Arak bere gauzak egin artean, eguneratu dizkiogu guk bizitzak elkarri. Goxo hartu naute etxean gero, kafea eta bizkotxo lagun.

 AMETS ARANGUREN ARRIETA  DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

Zer galdera ez zenuke egiterik nahi?

Kokoteraino nago “zer moduz bizi duzu hau emakume musikari gisa?” galderaz. Kokoteraino nago galdera horretaz eta jendeak jakintzat emateaz zu emakumea sentitzen zarela eta horregatik deitzeaz: “Deitzen dizugu nahi dugulako jakin zure esperientzia emakume musikari gisa eta ez dakit zer”. Horretaz nago... ezin dut gehiago!

Eta zein galderari nahiko zenioke erantzun?

Ez dut inoiz pentsatu... Ez dut sentitzen hain inportantea naizenik pentsatzeko “jo, hau galdetu izan balidate...”, ulertzen?

Bai, baina ez duzu faltan sumatzen zure ustez lekua izan beharko lukeen deus?

Ba ez da zerbait konkretua, baina mahai gainean jarriko nuke musikaren mundua oso kapazitista dela. Erran nahi dut, gaur egun badira borroka batzuk identitate desberdinen taularatze horren alde, baina identitate desberdin horiek ez dira identitate desberdin bakarrak. Bada jende bat musika egiten duena eta gurpildun aulki-dagoena edo falta duena beso bat edo hanka bat edo espektro autista bat duena.

Nik presente dut egunerokoan horrekin elkarbizitza bat dudalako nire ahizpagatik.

Baduzu amatxi bisitatzeko denborarik?

Bai. Kanpoan lanik ez badut, egunero bazkaltzen dut amatxirekin. Batzuetan ez da kalitatezko denbora, baina bai.

Zer da ezagutzen duzun musikaren mundutik gutxien jasaten duzuna?

Eszena desberdin batzuen parte naizela sentitzen dut nik, batzuetan halabeharrez eta bertze batzuetan hautatu dudalako. Gutxien jasaten dudana da jendeak pentsatzea ezagutzen zaituela aditzen duelako zure musika edo ikusi dituelako zure elkarriketak edo segitzen zaituelako Instagramen. Eta niri ere pasatzen zait, baina uste duguna ez da egia.

“Garaikidea da egiten duzuna, baina ez du iraunen”, diozu azken diskoko Ibili hadi argi kantan. Egiten ari zarenak iraunen du?

Ez dakit, ez dut sobera pentsatzen horretan. “Nahi nuke ez dakit nola oroitu nazatela” dioen diskurtso hori ez dut



Olaia Inziarte Gortari

ORONÓZ-MUGAIRI, 1999



Kazetaritza ikasketak hasi eta utzita, Iruñeko Nekazaritza eta Basogintza eskolan ikasi zuen goi-mailako grada eta mundu horretarantz eginen luke, inoiz musikarena utziko balu. Besteak beste Iker Lauroba, Joseba Tapia eta Chica Sobresalto taldeetako kide izan ondotik, 2022an abiatu zuen bere proiektu pertsonala, *Lehengo lepotikan burua* diskoarekin. Duela bi hilabete eskas atera da bere bigarren lan luzea: *Zerrautsa*. Animalia artean bizi da eta hala imajinatzen du bere bizitza etorkizunean ere.

konpartitzen. Gezurra da beti norbait oroitzen den manera. Bizirik ez dugu sekula jendea ongi ezagutzen, hortaz, behin hilda ere ez. Pila bat mitifikatzen dugu dena.

Nire ustez gauzek halabeharrez egiten dute bidaia bat, baina zerbaitek bidaia luzea egiten ahal du ez delarik bakarrik gelditzen nebulosan, ez delarik bakarrik gelditzen Interneten edo makrokonzertuetan. Kantek behar dute txertatu pixka bat jendearen egunerokoan.

Bizitza errealean leku bat izan?

Bai. Ez dakit zein den horretarako gako edo bidea, baina “garaikidea da egiten duzuna, baina ez du iraunen” horrek gaur egun egiten den musika arinari egiten dio erreferentzia. Bada jende bat nahi dituen zenbakiak egin eta horretarako formulak ikasi eta horiek zure musikan aplikatzea oso erraza da.

Gustagarria izateko behar duzu diskurtso zuri bat eduki, askoz posibleagoa da horrela jende gehiagorengana heltzea, ez baituzu eztabaidarik ezta ezinegonik sortzen inorengan. Ez da inor egonen desados zurekin solasten baduzu zure irriaz, zure begiez eta ilargiaz.

Nire kantak ez dut uste zuriak direnik. Badira oso gauza sotil batzuk, maitasun kanta bat amaxiri edo despedida kanta bat... Horrekin mundu guztiak konekta dezake, baina agian despedida kanta horrek tratatzen du suizidioa.

Lehenengo diskoa bai sentitzen dudala arinagoa letrei dagokienez, baina bigarren honetan oso gauza esplizituak daude. *Haserre hauek* kantan nik aipatzen ditudan gauzetako aunitz dira bailara honetan [Baztanen] edota herrian pasatzen direnak eta hor bada arrisku puntu bat.

Iraunen duen edo ez... Zerk irauten du? Zertaz irauten du?

Zein harreman duzu heriotzarekin?

Nahiko estua. Ez zait heriotza gehiegirik tokatu bizitzan. Orain arte erran dut “zortez” eta ez dakit zortez edo ez, horrela izan da eta listo. Bai, erranen nuke oso presente dudala, baina ez bel-durretik. Bi aitatxi-amatxi hil zaizkit, “esperotako” heriotzen artean.

Aitatxi Juanito oso presente dut eta niretzat hemen dago, gu denok zain-tzen. Sinisten dut gauza horietan, nire-

tzat ez da bukatu da eta puntu. Egitan garenetik oso aldenduta gaude: lurretik, naturatik eta gero gara inteligen-teak ordenagailuarekin. Sentitzetik oso aldenduak gaude.

Asko jo duzu beste batzuen musika. Izan herri-musika, Tapia eta Leturia, Chica Sobresalto, Iker Lauroba... Zein gauza on eman dizu horrek?

Horrek duen alde ona da irensten duzula aunitz, zeharka bada ere. Izan daitezke musika egiteko manera batzuk, baina baita taldeen barne funtzionamendu desberdinak ere. Ez duzu aurpegia ematearen ardura eta, beraz, zuk behar duzu zure lana egin eta listo. Hori niretako *la ostia* da.

Eta alde txarra da aunitzetan hor egonda pentsatzen duzula “joe, gustatuko litzaidake hau edo beste hau egitea”, eta ezin duzu. Hala ere, ni asko ondu nau bigarren, hirugarren edota laugarren le-rruetan egoteak. Eta ikaskuntza horiek behar izan ditut orain hemen egoteko. Bestela ez nintzateke ausartuko.

Kanta intimoak egitean erraza izaten da “malko errazaren” bila joatea eta iruditzen zait lortzen duzula gehienetan hortik aldentzea.

Ni ahaldundu nauena, eta *ahaldundu* hitzari mania ere hartu diot, izan da pentsatzea denok garela *zirku hutsa* eta kontrakoa erakusten saiatzea beste *zirku bat* da, baina *zirku txarra*. Nire izateko manera nire ardura da, baina ez nire kulpak. Guri tokatu zaigu izatea Disney Channel eta *Camp Rock* ikusi dutenak, zorionez eta zoritxarrez. Gure testuinguruaren ondorio gara eta hori disimulatzea absurdua iruditzen zait. Nire ustez, onuragarria da jendea he-laraztea zu ere *zirko hutsa* zarela. Asko kostatzen zait konektatzea hori disimulatzen duen jendearekin eta, aldi berean, oso logikoa iruditzen zait jendeak bere tripak erakutsi nahi ez izatea. Nik sentitzen dut bizi guztia eman dudala hori disimulatzen eta mundu emozional hori niretako gordetzen, beraz, agian justu hau da horren ordaina.

Kantak norbera eta gainontzekoak ongi entzuten dakien norbaitek idatziak direla ematen du.

Bai, baina azkenaldian egin dudalako lan hori. Oraina sendatzeko lana izan dut, baina iraganetik hasita. Nik iraganean sentitu dut ez dudala eduki zailta-



sunak kudeatzeko laguntza edo konpainiarik eta ez dut jakin horiek kudeatzen.

Helduaroan sartu naizean terapiari bukatu dut eta hori dena lantzen joan naiz. Nire inbertsio handienetako bat izan da nire osasun emozionala lantzea, *osasun mentala* kontzeptuak atzeraka ematen dit. Pribilegioa izan da, baina *putada* ere bai, halabeharrez izan delako, pilulak hartzea ekiditeko. Bukatu dut pilulak hartzen, baina behin hortik pasatuta, ez dutelako bertze biderik ikusi. Horri esker akitu dut gero edukitzen perspektiba batzuk lehenago ez nituenak eta uste dut perspektiba horiek eman didatela gero autoezagutza.

Osasun mentalaz baino osasun emozionalaz hitz egin behar da, beraz.

Osasun mentalak izenean bertan erraten du osasuna buruan dagoela eta, ez dakit, gure mundu arrazional honekin lotzen dut hori. Beti egiten da bereizketa: lepotik goiti eta lepotik beheiti. Merkatuak hartu du osasun mentala kontzeptua beretako eta hor badira joera batzuk... Psikologia positibista eta hori dena iruditzen zait *zirk* bat: "Jarri ispiluaren aitzinean eta erran balio duzula". Ba ez. Kaka bat naiz, baina ongi dago.

Zorte eta pribilegioa da emozioekin konektatzeko astia, indarra, tokia eta gai-

“

**Gezurra da beti
norbait oroitzen
den manera. Bizirik ez
dugu sekula jendea ongi
ezagutzen, hortaz,
behin hilda ere ez”**

tasuna edukitzea. Den bezala pribilegioa militatzea edo musika talde bat edukitzea.

**Askok agertzen da Olaia
haurra diskoan eta uste
dute zure bizitzan ere
baduela presentzia. Zein
harreman duzu harekin
momentu honetan?**

Nahiko estua. Orain nagoen tokitik ulertzen ari naiz zertaz naizen naizen bezalakoa. Eta horretarako egin behar izan dut bidaia bat Olaia haurrarengana. Haurrak garelarik badugu ausardia, adibidez, ibiltzen hasteko, baina atzera begira aritzen gara, ea baden eutsiko gaituen inor. Eta memoria emozional hori guztia gorputz guztiko zeluletan dago.

Horri garrantzi handia ematen diot eta zentzu horretan pena handia dut Olaia haurrarekiko, salbatu nahi dudalak. Aldi berean uste dut zoriotsu izan zela lehenbiziko urteetan. Bideoak-eta ikusten ditudan aldiro samurtasun handia ematen dit. Gero uste dut nire bizitza aunitz aldatu zela ahizpa sortu zelarik, eskolan hasi nintzelarik...

**Diskoan, Olaiaz aparte, behin baino
gehiagotan aipatzen dituzu haurrak,
orokorki, baita helduak ere. Era
dikotomikoan ulertzen dituzu bi
taldeok?**

Bai dikotomikoki, baina ez batzuk beskeen kontra. Hau da, helduek galdua

dute hurrek oraindik mantentzen duten esentzia. Buztina fresko dagoelarik bezala dira haurrak niretako eta helduek dagoeneko egin dute loreontzi aspergarri eta itsusia, margotu gabea...

Momentu honetan zein zalantza duzu?

Orokorrean?

Bai.

Ba nire zalantzak, ez direnak pertsonalak eta ez zaizkidanak inporta jende ezezagunak periodikoan leitzetik... [barreak]. Ez dakit ongi aterako zaidan musika nire neurritan egin eta hortik bizi ahal izateko jokaldi hau. Ez bazait ateratzen suposatuko du musika uztea, formatu honetan behintzat.

Zer duzu argi?

Segitzeko gai baldin banaiz ere, halabeharrez iritsiko dela momentu bat zeinetan ezinen dudan musikarik egin parametro horietan, hortik bizitzeko. Zaintzara dedikatu beharko naiz eta horrek mugatuko du nire eguneroko bizitza. Hemen [Oronosen] bizi beharko naiz eta ezinen naiz ibili harat-honat sobera edo ordu txikit. Ez dakit noiz izanen den hori, baina ailegatuko dela presente eta argi dut.

Eta zerk beldurtzen zaitu?

Horrek nola baldintzatuko didan bizitza. Joan den egunean eman zuten justu *Ur Handitan* programan zaintzaren inguruko kapitulu bat eta neska batek aipatzen zuen gurasoen zaintzara dedikatu behar zela alaba bakarra zelako. Ni ez naiz alaba bakarra, baina nire ahizpak ere behar du zaindua izan. Ni izan beharko naiz gurasoen eta ahizparen zaintzaile eta horrek kristoren bertigoia ematen dit, ez dakit nola moldatuko naizen.

Zer uste du jendeak zutaz ez dena egia?

Zuzena naizela eta ez naizela batere ka-broia. Askok erraten dute "ai, ze majika". Joe, ba bai, saiatzan naiz, nola ez, baina batzuetan gustatuko litzaidake askoz ere zakarragoa izatea eta lasai geratzea. Zentzu horretan aunitzetan nire pentsamenduak eta egiteko manierak ez doaz eskutik, kasik inoiz ez.

Gero hemen, herrian, pentsatzen dute bikain bizi naizela [barreak]. Ikusten nauteste azteazken batez zurekin etxean gelditzen, dendara joaten 10:00etan ogia, esnea eta kafea erostera eta esaten didate "joe, ze gustora e", erranez bezala "ze

ongi bizi zaren”. Nik normalean baietz erraten dut eta listo.

Zer da zuretzat etxea?

Galdera zaila. Oso ongi geratzen da erratea ez dela toki fisiko bat, baina bada toki fisiko bat atsegina izatea nahi dudana, baina ez dut erabat lortu. Batzuetan bada, baina beste batzuetan *trauma tour* da. Zure istorio guztiak bere barnean biltzen dituen tokia da etxea, leku goxoa da, baina ezinegonak ere izan behar dute tokia. Erdi-museo bat da. Gero zuk begiratzen ahal duzu museo horren pareta bat edo ez, edo gela bat ireki edo ez, eta hor moldatu behar duzu. Etxea da leku bat zeinean konpartitu dezakezun.

Zuretzat, Oronozen dago hori guztia biltzen duen etxea?

Bai. Herriarekin bakeak egiteko prozesuan nago. Nahiko *guay*. Gustatzen zait ogia erostera joan eta herriko *señorak* ikustea. Gauza sinple horiek zoriontsu egiten naute; edo bildotsei denbora luzez begira gelditzeak. Lehen ez nintzen geldituko ez nuelako autoestimua nahikoa, norbait ondortik pasako balitz sentituko nu-



keelako ari zela pentsatzen ea zertan ari nintzen. *Koño*, ari naiz bildotsei begira!

Orain ez dut lotsarik horretarako edo katua paseoan ateratzeko. Nire barridea ehiztaria da eta harendako zirko bat da gu katuei jaten ematen aritzea. Hori ikusten zuenean erraten zigun: “Zer, azienda

bazkatzera?”. Bai, Miguel Mari, bai. *Zirko* bat naiz? Ba *zirko* bat naiz.

Gaitasun handia duzu kantak collage gisan egiteko, parte desberdin askok elkarrekin funtziona dezaten. Niri kanta egin aurretik esanen bazenit hori dela zure asmoa, ez litzaidake ideia ona irudituko.

Hori da taldekideek esaten didatena. Hasieratik egia da nahiko ideia finkoa izaten dudala eta horretan burugogorra izatera hel naitekeela. Batzuetan erraten dut, “zein harroputza, uste duzu lehenengoan izan duzun ideia dela zoragarriena”; eta gero erraten dut, “hau bada seguru dudana bakarra, ez da gaizki”. Eta nire ustez lehenbiziko ideia horrek, zerbaitengatik eduki du tokia lehenbiziko ideia gisa.

Musika berria atera bezain pronto entzuten egon behar dugula ematen du askotan, antsietate puntu batekin.

Nire ustez bai zuk eta bai lan horrek me-rezi dute lasai aditzea. Eta, aldi berean, ez zuk duzun beharra, ez lan hori, ez dira hain inportanteak. ●



22

GIZA ESKUBIDEEN ZINEMALDIA

DONOSTIA 2025

4 - 11 apirila

Antolatzaileak



Babesleak





www.zinemaetagitzaeskubideak.eus





Botere biguna desarmatzen

Martxoaren 14an Donald Trumpek agindu exekutibo bat sinatu zuen, hainbat berri agentziak jasotzen duten diru kopurua asko murrizteko. Kaltetuetako bat *United States Agency for Global Media* (USAGM) izan zen eta, ondorioz, *Voice of America* (VOA), *Radio Free Europe/Radio Liberty* (RFE/RL), *Radio Free Asia*, *Middle East Broadcasting Networks* (MBN) eta *Radio Martí*. Guztiak AEBen gerra kulturalerako tresnak dira. Martxoaren 15ean VOAKo langileek e-posta bat jaso zuten, adierazten zuena beraien lana suspentsioan gelditzen zela. Hedabide hori 1942an jaio zen eta web-gunea 48 hizkuntzatan dago.

1949tik RFE/RLk ere hamarnaka hizkuntzatan lan egiten du, eta finantza-kolpeak hilzorian utzi dezakeen arren, oraindik berriak produzitzen jarraitzen du. VOAre eta RFE/RLren emisioak altzairuzko oihalaren beste aldean oso garrantzitsuak izan ziren, "sozialismo errealeko" gobernuek zentsuratzen zituzten berriei informatzeko. Horrela, Europako Ekialdeko herriar askoren artean sinesgarritasuna irabazi zuten, eta behin konfiantza irabazita, errazagoa zen propaganda Mendebaldar zalea zabaltzea. Orain, aldiz, prentsa askatasun handiagoko testuinguruetan eta Internetek suposatuen iraultza komunikatiboagatik, beraien funtzioa ez dute ondo betetzen. Horregatik, Trumpek eta Elon Muskek motozerra paseatzera atera dute.

Erabakiak ez dauka garrantzia handiegirik botere bigunaren ikuspegitik. Bes-

Mendebaldeko diruak gizarte zibil ia osoa erosteko ahalmena du. Klase ertain dirudunak bitartekaritza lana egiten du herrialdea kontrolatu nahi duen potentziaren eta herrialdeko politikaren artean

telakoa da otsailean Ameriketako Estatu Batuetako Nazioarteko Garapenerako Agentziari (USAID) emaniko aizkorakada, 1.600 langile kaleratuta, milaka aldi baterako erregulazioan jarrita, eta hiru hilabetez munduan zehar zabaltzen dituen dirulaguntzak izoztuta. Zer egingo dute hainbeste kazetari eta hedabide "independentek" (sic)? Mugarik Gabeko Kazetariak (RSF) GKEak Trumpen neurria deitoratu eta jakinarazi du 2023an USAIDek 6.200 kazetari finantzatu zituela, 707 komunikabide ez estatal eta 279 GKE mediatiko 30 herrialde baino gehiagotan.

1961ean USAID sortu zenean John F. Kennedyk ondo azaldu zuen zein ziren beraiek helburuak: "Ez dugunez tropa amerikarrik bidali nahi askatasuna erasopean egon litekeen eremu askotara, zuek (USAID) bidaltzen zaituztegu".



ASIER BLAS MENDOZA
EHU-KO IRAKASLEA

USAIDek ez du bakarrik lanik egiten, 1983an Ronald Reagan-ek National Endowment for Democracy-ren (NED) sorrera bultzatu zuen, alde aurretik CIAk egiten zituen funtzio batzuk hartzeko. NEDen aurrekontuak ere Musken aizkorakada sufritu du. Halere, botere bigunaren industrian Mendebaldeko herrialde ia guztiak daude beraien gobernuetako agentziekin, alderdien fundazioekin eta enpresari oligarkekin ere. Helburuen artean dituzte hainbat herrialdetako gobernuak aldatzea edo baldintzatzea, eta politika publikoak gidatzea edo gutxienez baldintzatzea.

Herrialde pobreen kasuan, Mendebaldeko diruak gizarte zibil ia osoa erosteko ahalmena du. Ordaintzen dituen soldatekin eta eskaintzen dituen pribilegiozko konexioekin bere aldeko burgesia erosle antzeko zezor sortzen du. Klase ertain dirudun horrek bitartekaritza lana egiten du herrialdea kontrolatu nahi duen potentziaren eta herrialdeko politikaren artean.

Ildo horretan, jakin dugu 2024ko Georgiako hauteskundeetako emaitzak deslegitimatze kanpaina USAIDek 41,7 milioi dolar xahutu zituela, aldiz, hauteskundeetan parte hartu zuten alderdi guztien gastua 25 milioi dolar inguru izan ziren. USAIDekin batera beste hamarnaka agentziak eta herrialdek parte hartu zuten georgiar gobernuaren kontra; horregatik, USAID ahulduta ere, nekez desagertuko dira horrelako praktikak. ●

Hezkuntza Saila: ezgai ala ez duin?



TERE MALDONADO
FILOSOFIA IRAKASLEA

Hezkuntzari buruzko legediak, Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundearen eta planetako jaun eta jabeen aginduei jarraituz, ikasleek ikasketa etapa bakoitzaren amaieran “irteera-profil” jakin bat izatea bilatzen du. Ez pentsa profila zerbait itxia eta bukatua denik, ez, profila aldatuz joango da, bizitza bera bezala; profil hori eskuratzea ezinbestekoa da, esaten digute, bizitza osorako ikaskuntza-prozesuaren zati gisa. Hori xe diote eta horrela nahi dute munduko jabeek eta euren nazioarteko erakundeetako zein erkidego-gobernuetako lekaioek. Jakina, irteera-profil hori oinarritzko gaitasunak eskuratzearekin lotzen dute. Dagoeneko ziurtatu dute irakaskuntzak ezagutzaren transmisioan zentratuta egoteari utzi diola eta “oinarritzko gaitasunak” eskuratzea biratu duela. Berritsukeria horren guztia- ren emaitza: ikasleek gero eta gutxiago ikastea, irakasleek gero eta etsi-ago egotea eta, arrazoi beragatik, gero eta gutxiago irakastea (susma dezagun: eta horiek izango balira benetako helburuak?). Ebaluazio diagnostikoak argi adierazi du.

Bada, deabruak naramala hau egia ez bada: Hezkuntza Sailak ez du irteera-profilik eskuratu. Duela urte batzuk hezkuntza-metafora arruntagoak erabiliko genituzkeen, hala nola “irakasgaia ez duela gainditu” edo “etxerako lanak ez dituela egin”, baina irakasgaiak, etxerako lanak, baita irakasleak ere, desagertzeko trantzean daudenez, erabil ditzagun irudi garaikideagoak: ezgai hutsak dira, ez dituzte gutxiene-ko gaitasunak eskuratu.

Egunotan, komunikabideei esker jakin dugu Hezkuntza Sailak euskal hezkuntza sistemaren azken ebaluazio diagnostikoaren emaitzak aztertu zituenean



MAIDER LETURIAGA

prentsaurrekoan datu oker batzuk eman zituela. Hasteko, dirudienez, astelehen arratsalde batean gobernuaren prentsaurreko bat egitea oso ezohikoa da, batez ere aipatutako emaitzak bezain garrantzitsua den gai baterako. Sare sozialak egunero gizentzen ditugu eta horrek ondorioak ditu, besteak beste, kazetaritza profesionalaren prekaritate bultzatzea. Gaur Begoña Pedrosaren

prentsaurrekoa eta bihar Zornotzako moto-kros lasterketaren berri eman behar badu, oso litekeena da astelehen arratsaldean Lakuara bertaratzen den kazetaria sailburuak esaten duenaren ohar batzuk hartzera mugatzea eta kito.

Prentsaurrekoaren bideoa Eusko Jaurlaritzako Irekia web orrian ikusgai dago. Nork pasako du ordubete hitzontzikeria burokratiko-pedagogiko jasanezina entzuten? Ordu luze batez hitz egiten dute azpimarratzeko, batez ere, sailaren asmoa eta helburuak, hau da, zer lortu nahi duten. Asmatu daitekeenez, emaitza akademikoak eta irakaskuntzaren kalitatea hobetzea bilatzen dute, erabateko konpromisoa dute hobekuntzarekin, nola ez ba! Oso helburu laudagarria, hobetzeko tartea benetan handia da. Ederto, baina hori *wishful thinking* da, suposatzea baita asmoak ez direla txarrak izango, ez behintzat asmo aitortuak (itxuratuak?). Hala ere, kontua ez zen proba baten emaitzak aztertea?

Kazetari espezializatu batek –esker- rarak oraindik gelditzen direla– ebaluazio diagnostikoaren datuak aztertu zituen eta Lakuara joan zen etxerako lanak eginda. Zuzenak ez ziren datuak eman zirela jakinarazi zuen, eta gero zutabe bat idatzi zuen, “Hezkuntza sailaren manipulazio ariketak” titulupean. Euskaraz egin zuen, gaztelaniaz hedapen handia duen egunkari batean...; susmoa dut oharkabea pasatu zela.

Bi aukera besterik ez ditut ikusten: edo erratu dira (*errare humanum est*) eta, beraz, agerian jarri dute ez dutela beren lana egiteko gaitasunik (norbaitek ikusi behar baitzuen akatsa, zabaldu baino lehen); edo, bai, datuak manipulatzeko saiatu dira eta, kasu horretan, ez dute nahikoa duintasunik saila *lideratzen* jarraitzeko. ●

Burujabetza eta herri boterearen aldeko topaketak Tafallan



ITZIAR MORENO
EUSKAL PERTSONA
POLIFAZETIKOA

Topatu eta topa! Tipi-tapa, elkarrekin ekin eta, bidea, eginean egin aurrera. Mahaiak, aulkiak, koadernoak eta boligrafoak, platerak, konfidentziak, tragoak eta ahotsak, eskuak, ideiak eta barreak, borrokarako besarkada gozoak. Txistulariak bileran, erraldoiak lasterka eta txikiak auto-antolakuntzan. Postuetan kilometrorik gabeko trukeak. Keinu txikiak, urrats handiak. Hariak ehuntzen, sarea eta konspiraziorako tartea. Hori guztia eta gehiago, maiatzaren 24an, Tafallan.

Konspirazioa... hori hitz ederra hori! Gure herrian zer edo zer badakigu horri buruz, bai. Hainbat gazte zorok herrietako elizetan ikurrinak jartzen hasi eta elkarri lotuta gotzainari titiak erakusten amaitu genuen; hamaika kartzelatik ihesi, korrika-korrika etorkinekin mugak apurtu ditugu; harresiak hegaz igo dituzte batzuek, lurrian eserita elkartasun harresiak eraiki besteek; margotu ditugu hamaika mila aldarri, kaleak, kaiak eta hegazkinak; lurra okupatu, okupatzailen handinahikeriak lurrez estali ditugu.

Herri mugimendua zabala eta aberatsa da Euskal Herrian. Elkartzen ga-

renean, indarrak biderkatu eta gauza handiak egiteko gai garela ikusi eta ikasi dugu. Horra, azken hilabeteotan egindako ekimen jendetsuak, Palestinaren alde edo Aroztegiaren makro-proiektuaren aurka. *Amuarrainak begi bi, sei ezkailuk hamabi*, abesten genuen aspaldi. Bada, Burujabetza eta herri boterearen aldeko topaketen helburua da Euskal Herriko herri mugimenduari tresnak eskaintzea elkartzeko eta elkarrekin eragiteko; norbere aldarri eta ekinbideari eutsiz, norgure indar eta makulu bilakatu gaitezen.

Nola egingo dugu hori? Arloz-arloko bilkurak aurrena, janean konspiratu eta dantzan iraultza eginez hurrena. Zer behar da bertan parte hartzeko? Ilusioa, ideiak, grina, begiak, belarriak eta ahoa (azken hiru horiek ez dira halabeharrezkoak). Amaraunaren sarea sareetan ere bada: www.bameh.eus hari muturren harila, guztion artean harilkatzekoa.

Txalapartaren deiadarra kale kantoietan barna dabil, itsasotik mendi tontorretaraino orroka! Euskal Herrian alternatibak badaude, eraiki ditzagun elkarrekin! ●

Bakardade tonifikatua



EDU ZELAIETA ANTA
IRAKASLEA ETA
IDAZLEA

Zenbait estatistikak berretsi dute begiak hondar urteotan ikusten ari zirena: gimnasioak (eta estetika-zentroak eta nolako-edo halako-terapia eskaintzen duten negozioak) nabarmen ugaltu dira gurean. EITBk plazaratutako datu bat emateko: EAEn 2010-2019 urteen bitartean, zazpi gimnasio berri zabaldu ziren urtero; 2019tik 2023rako epean, ia boskoiztu zen aurreko hamarkadaren proportzioa, eta 34 gimnasio ireki ziren urtean.

Gimnasiora joateko arrazoiak askotarikoak direla diote zenbaitek, eta osasunaren garrantzia handitu dela diote hainbatek. Halarik ere, nekez uka-

daiteke *fitness*-aren gorakadak edertasun-kanon garaikidearekin duen lotura estua: gure diskurtsoa bestelakoa izanagatik ere, gorputz tonifikatuak (eta argaltasuna) maite ditugu. Gero eta gehiago, iduri duenez. Hitzak eta begiak –honetan ere– ez datoz bat.

Beharrik guztia ez den txarra: bakoi-tza bere jarduera fisikoan zentratzen den bitartean, aurikularrak belarrietan, ongi tonifikatua dugu bakardade kolektiboa. Auzoko dendak gainbeheran, liburutegiak –azterketariak kenduta– husten, baina gure muskuluak definituta daude.

Batzuk beste batzuk baino gehiago, betiere. ●

Plater garbiak



ANUNTXI ARANA
ANTROPOLOGOA

“**H**ondakinik ez platerean!”. Hori zen kontsigna gure txikitako otorduetan. Janariak zeozer sakratu bazukeen, batez ere ogiak; lurrera erori eta, jasotakoan, musua eman behar zitzaion. Harik eta adin zozoan mamia baztertzeke moda etorri zen arte, lodiarazten zuelakoan. Adin nagusian ere badira berdin jokatzeko dutenak. Osterantzean, zer goxoa ogi matorra saltsan bustia. Lastima, etxean bakarrik egitekoa da, publikoan ez ei da polita. Are gehiago, batzuek diote jaki zerbait platerean lagatzea dela dotoreena, ez dezala inork pentsa goseak hamikaturik garela.

Txundidura zen, halere, ikaskide batek, aberatsa bera, kafetegian pastela eskatu eta erdia jan gabe bertan uzten zuenean; eta aldamenen zeuden mizkin frustratuetarik bat ere ez ausartzen zati hura ahoratzen, ez zelako holakorik egiten, nahiz eta poltsikoan pezetarik eduki ez kafea goxoki batez laguntzeko. Dirua holako maneran botatzeak, horrek zuen eskandalu ematen, ordurako ez baitzen gehiago bekatu janaria galaraztea.

Askoz geroago, lagunaren lagun batek, afaldu bitartean, serio azaldu zuen

Janariak zeozer sakratu bazukeen, batez ere ogiak; lurrera erori eta, jasotakoan, musua eman behar zitzaion. Harik eta adin zozoan mamia baztertzeke moda etorri zen arte

bere praktika bikaina: ez zuela inoiz jaten zerbitzatzen zioten guztia, aszesi hori eskatzen zion gogoak gorputzari, silueta zolia atxikitzearen. Esan eta egin: eskatu gabe zati txikiagoa ekar ziezaiotela, hantxe utzi zuen behiki-zerra puska, eta erakutsi nola nagusitzen ahal zaion apetitu eragabeari.

Antzeko moduan gure *progreen* hainbat jai jatorretan: plater bakoitzean saiheski bana, eta laster erdia zakar ontzira. Hori gaur egunean, dagoeneko denek dakigunean munduko eta hemengo gosea zer den, ezaguna denean haragia minetan hazia eta minetan hila izan dela eta haren ekoizpenak zer inpaktu handia duen ingurumenean. Eta alferrik suntsitu.

Azken urte hauetan janariaren xahuketa amaigabea murrizteko neurriak abiatu dira, adibidez, udal zenbaitek herritarren esku ezartzen dute eskola jantokietako soberakina. Profesionalek ere balukete zer egin; ostatuetan plater beteak atera orde erretiluan zerbitzatzeko balute, hondarrak balioztatzen ahalko lituzke.

Bestela, bezeroen xelebrekeriak ere baditugu. Hollywood-eko izar baten haurrak, nerabea hain segur, gurasoak nardatzeko jatetxean azietak miazkatzuten omen zituen. A zer amets glamoroso guretzat Donostiako zine festibalean Maria Cristinako apoloak ikusiko bagenitu, mihiaz ez bada ere, ogiaz azken zukuak biltzen eta platerak garbi-garbiak uzten, dotorezia gorenean. ●



ATXEGA JAUREGIA JATETXEA

EGUNEKO ETA ASTEBURUKO MENU BEREZIAK
EKITALDIAK, OSPAIZUNAK, FAMILIA TOPAKETAK...

USURBIL • 943 37 11 50 • www.atxegajauregia.com



Haur guztiek dute
superbotereren bat,
helduok hala ikusi ez arren.
Erabili behar genituzke
eskola-proiektua
diseinatzerakoan.

Liburua **16€**
+ Bidalketa gastuak




Koldo Rabadan egilearekin
hitzaldiak antolatzenko:
solasaldiak@argia.eus

azoka.argia.eus (+34) 943 37 15 45



IKASTETXEEN FUSIOA

Nola batu
bi hezkuntza komunitate...
Albo-kalte
gutxien eraginez



Nolako esperientzia eta ondorioak izan dituzte iraganean bateratu ziren ikastetxeek? Zein berme eskatzen dituzte orain fusio fasean murgilduta daudenek? Bi ikastetxek bat egiteko prozesuan, aintzat hartu beha-

rreko gakoak zein diren aletu ditugu, etorkizunean fusioen politikak jarraituko duela aurreikusita. "Benetan da ikasleengan pentsatuz eginiko inbertsioa, ala tramite administratibo hutsa? Hor dago gakoa".

MIKEL GARCIA IDIAKEZ UNAI GAZTELUMENDI



Zein da fusio baterako abiapuntua? Itunpeko ikastetxeen kasuan, zentroek eurek erabakitzen dute elkartzea. Ezagutu ditugun kasuei erreparatuta, Kristau Eskola sareko ikastetxeen azken bateratzeetan, adibidez, matrikulek behera egin dutela ikusi dutenean hartu dute erabakia, hainbatean polemikak zipriztinduta, aurrerago azalduko dugunez. Eskola publikoez ari garelarik, Eusko Jaurlaritzarena eta Nafarroako Gobernuarena da eskumena Hego Euskal Herrian, eta sarri leporatu zaie erabakia aldebakarrez hartu eta fusioatzeko neurria inposatu izana. “Goitik datozen erabakiak izan dira, inorekin adostu gabe, ez ikastetxeekin, ez langileen ordezkari garen sindikatuokin”, kritikatu du STEILAS sindikatuko bozeramaile Haizea Arbidek. Horren adibide, berriki Jaurlaritzak iragarri dituen bateratzeak: Gasteizen datorren ikasturtean elkartuko dituzten Umandi eta Padre Orbisoko gurasoek desinformazioa eta ezezagutza salatu dute; eta hemendik bi ikasturtera batuko dituzten Adurza eta San Ignaciokoek ere berdin: “Ikasturte honetan zurrumurruak entzun genituen, bateratzea egongo zela, baina 2024ko abenduko eskola kontseilura arte ez dugu berririk izan, eta hor ere, ez zen ezer zehaztu, 2026ko irailetik aurrera bi ikastetxeek bat eginik ekingo diogula besterik ez, gainerakoa egiten joango dela esan ziguten –kontatu digute Adurza ikastetxeko Ikasberri guraso elkartetik–. Eusko Jaurlaritzak aldebakarrez jokatu du eta abiapuntua ez da egokia izan”.

Iragarritako azken hiru fusioen atzean bi arrazoi nagusi nabarmendu ditu Jaurlaritzak: segregazioari aurre egiteko eta hezkuntza proiektu hobea lortzeko bidea izango omen dira. Duela hamabost bat urteko fusioak justifikatzeko ere, hezkuntza proiektu hobea bideratzeko modua zela argudiatzen zuen Jaurlaritzak, orduko prentsan irakurri dugunez. Sindikatuak, baina, oso kritikatu agertu dira bat-egite iragarpenekin eta iritzi diote ikuspegi ekonomizista hutsari erantzuten diola erabakiak, helburua dela jaiotze-tasa txikitzen ari denez ikastetxe kopurua (eta irakasle eta langile kopurua) murriztea. “Datorren ikasturtean, Gasteizen zaurgarritasun maila oso handia duten bi ikastetxe lotuko dira, hori ez da segregazioari aurre egiteko neurri bat –dio Arbidek–. Hezkuntza proiektu hobea ekarriko duela? Bakoitzak bere metodologia propioa au-

keratu, landu eta horretarako formatu diren bi ikastetxe bakar bihurtzeak ekarriko du hori? Dakarrena da bi errealtate ezberdin bakarrera ekartzea”. Imo mintzatu da Arbide: “Argudio horien guztien atzean benetan dagoena da ikastetxe publiko bat itxiko dela eta ondorioz eskola publikoa ahuldu eta ikastetxe pribatuak indartu egingo direla; mozorroturiko murrizketa da”.

“Jaurlaritzak zuzendaritzen gain jarri ditu prozesuaren ardura eta pisua, baina ezinbestekoa izango da komunitate guztia aintzat hartzea”

Patxi Ibarzabal, gurasoa

ESKOLA MAKRO GUTXI BATZUK VS. TXIKI UGARI

Ikastetxeak elkartzeko politikaren aldean, beste alternatiba bat litzateke bultzatzea ratio txikiagoko eskolak, eskola txikiak, askotarikoak, anitzak, lekuan lekukoak... baina Hezkuntza Sailak hartu duen bidea kontrakoa dela dio STEILASeko bozeramaileak, badirudiela herrietako eskolak sendotu beharrean Ikastetxe Publiko Integratuak sustatu nahi dituela, alegia 2 urteko haurrak direnetik DBH bukatu arte ikasleak eskola berean mantentzen dituzten zentroak –Lehen Hezkuntza amaitutakoan beste zentro batera, institutu batera, salto egin ordez–: “Hori da pribatuak saltzen duen eta balio dion argudio bat, baina horrek kalte egiten die eskola txikiei eta herri eskolei”. Makro-ikastetxeek izan ohi duten albo-kalte bat ere aipatu du Arbidek: *ikasle garraiatuak* sortzea, normalean ikasle asko biltzen dituzten halako zentroak urrunago egon ohi direlako, ez auzoan bertan.

Azken finean, norbere etxetik gertu eskola publiko bat bermatzea sindikatuen aspaldiko aldarrikapena da, administrazioak amarrua egiten duela iritzi baitiote: Eusko Jaurlaritzaren eskola mapan, eragin-eremu guztietan dago gutxienez eskola publiko bat, baina hori eragin-eremua zabaldua lortzen duela diote. Adibidea jarri digu elkarrizke-

tatuak: “Tolosaldeko eragin-eremuan, hiru herritan eskaintza pribatua baino ez dute, Ibarra, Anoeta eta Iruritan, baina nola Tolosak ikastetxe publikoa daukan eta eragin-eremu berean sartu dituzten herri horiek ere, lurralde horrek eskola publikoa bermatua duela dio Hezkuntza Sailak. Ez da hala, hiru herri horiek ez dute aukera publikorik euren herrian, eta eskola publikoan ikasi nahi duten familiek herritik kanpora bidali behar dituzte seme-alabak. Berriz ere, *ikasle garraiatuak* sortzen dituzte”.

PROZESUAN AINTZAT HARTU BEHARREKOAK

Fusio prozesu bat ahalik eta ongien burutzeko, zein dira gakoak? Galdera luzatuta, pista ugari eman dizkigute soslaskideek.

Hasteko, Jaurlaritzatik aldarrikatuturiko helburuak bete daitezen, horri guztiari benetan erantzungo dion plana eskatzen dute: “Oraindik ikusteko dago ea Jaurlaritzak proiektu bat garatzearen aldeko apustua egingo duen, horretarako baliabideak eta moduak jarriko dituen, ala edukirik gabeko fusio hutsa den helburua; benetan da ikasleengan pentsatuz eginiko inbertsioa, ala tramite administratibo hutsa?”, dio Patxi Ibarzabal Adurza ikastetxeko gurasoak, kezkatuta. Azken finean, planifikaziorik ez dagoela eta Hezkuntza Saila zer egiteko prest dagoen ez dakitela dio: “Gu oso prest gaude ekarpenak egiteko eta proiektu on bat gauzatzearen alde lan egiteko, baina uneotan ez dakigu zer den erreala eta zer ez, prozesuan adosten goazen erabakiak babestuko dituen ala ez; inbertituko al du euskara erdigunean izango duen hizkuntza planean, kulturartekotasuna sustatzen, espazioen berrantolaketak behar dituen obretan? Sei hilabete pasa dira, eta aurrerapenak ikustea beharrezko dugu”.

Fusioaren beste zatiak, San Ignacio ikastetxeak, antzera bizi du auzia. Bertako Olaitu guraso elkarteko Edyth Meneses eta Bintu Camarak adierazi digute sinistu nahi dutela baietz, hezkuntza proiektu on bat lortzeko modua izango dela, baina exijituko dute “helburuak benetan bete daitezen”. Esaterako, Adurzak D eredua duela eta San Ignaciok B eredua ere baduela kontuan hartuta, Meneses eta Camarak badute kezka: euskarazko murgiltze eredura igaroko badira “laguntza eta errefortzua izango al dute gure seme-alabek, baliabideak bideratuko al dira horretarako?”.



Eibarko Mogel Isasiko gurasoak kritiko agertu ziren fusioarekin: "Aniztasunari modu inklusiboan erantzutea ez da soilik eskola desberdinetako ikasleak ikastetxe berean batzea. Zein baliabide gehigarri jarriko da aniztasun horri erantzuteko?"

Ildo berean, segregazioari aurre egiteko neurria izango ei dela-eta, Isasi Mo-geleko gurasoen hitzekin akordatu gara. Eibarko ikastetxea duela kasik hamar urte fusionatu zen, eta hala mintzo ziren gurasoak, orduko prentsan, proiekturik gabeko bateratze hutsa zela salatuta: "Aniztasunari modu inklusiboan erantzutea ez da soilik eskola desberdinetako ikasleak ikastetxe berean batzea. Zein baliabide gehigarri jarriko da aniztasun horri erantzuteko?"

Ziurgabetasun eta zalantza horien guztien aldean, hezkuntza komunitateko eragileekin aurrez adostutako bide-orria eskertuko lukete solaskideek, prozesu planifikatua eta ongi komunikatua izatea.

"Hezkuntza Sailak esan du irakasleak mantenduko direla, baina badakigu epe laburrerako promesa izango dela, gero ziur egongo dela lanpostu galera"

Haizea Arbide, STEILAS

Beste gako garrantzitsu bat: hezkuntza komunitate osoak parte har-

tuko duen prozesu partekatua izatea. Adurzako gurasoak kontatu digu hasiak direla familiak elkartzen eta bi ikastetxeetako gurasoen arteko harremana sendotzeko hartu-emana indartzen eta ekintza bateratuak prestatzen: "Bate-tik, ekarpen ahalik eta gehien egiteko prozesuari, denok dugulako zer esana, eta bestetik, auzokide garen heinean harreman kohesionatuagoa lortzeko, oraingoz bi eskolak banantzen dituen hesi hori apurtzen joateko". Hain justu, San Ignacioko gurasoek ere uste dute lan egin behar dela "eskolan sortuko den komunitate berriak isla izan dezan auzoan, integrazio hori auzora zabaldu dadin". Hitz gutxitan, prozesu parte-hartzailea eta gardena eskatzen dute Adurza eta San Ignacioko familieek, baina Patxi Ibarzabalek kritikatu du Hezkuntza Sailak ez duela haiekin harremanik: "Eskutitza bidali genion eta ez zigun erantzun, eta orain gure ekarpen eta mezuak ikastetxe-ko zuzendaritzak helarazten dizkio, Jaurilaritzak zuzendaritzen gain jarri di-tuelako prozesuaren ardura eta pisua, baina ezinbestekoa izango da komunitate guztia aintzat hartzea".

Kuriosoa da, Ibarluzeak azaldu due-nez, 2021-2023 urteen artean Jaurlari-tzatik hainbat pautak eman zitzaizkien bi ikastetxeei, pixkanaka gerturatzen joateko eta hainbat arlo aztertzen joa-teko; "harreman eta informazio sare bat zegoen, komunikazio bide bat, baina eten egin zen eta orain bat-batean guztiz bestelako dinamika ezarri da, ez dugu ulertzen zergatik egin den hau horrela, aurrez esperientzia hura izanda".

Gakoez ari garela, sindikatutik oharra egin du Arbidek: plantillak mantentzea. "Hezkuntza Sailak esan du irakasleak mantenduko direla, baina badakigu epe laburrerako promesa izango dela, pare bat urterako kontua, eta gero ziur egon-go dela lanpostu galera, edonork ikus dezake hori".

Kontuak kontu, aztertu beharreko ar-loak asko dira kasuan kasu, eta adibide bat jarri du Arbidek: lerro asko dituz-ten ikastetxeetan, batzuetan eraikin bat baino gehiago behar dute ikasle guztiei erantzuteko: "Zuzendaritza bakarra izan arren kilometrotako distantzia baldin badaukazu zentro batetik bestera, zer nolako koordinazioa eta elkarbizitza bultzatzen dira horietan?"

IRAGANEKO ESPERIENTZIAK

Ez da erraza bi hezkuntza komunitate -bakoitzak bere filosofia, ikusmolde,

proiektu eta pedagogia propioa tarteko- eredu bakar bilakatzeari, eta horren seinale dira aurretik izandako esperientziak: prozesu gatazkatsu eta mingarriak izan dira maiz, adosteko zailak, gainera sarri administrazioak goitik agindutako erabaki bati erantzun behar izan diotelako fusioek, eta ez ikastetxeek eurek ikusitako behar bati.

Azken adibidea Kristau Eskolak utzi digu. Jaiotze tasaren beherakada -eta ondorioz, matrikulazio jaitsiera- argudiatuta, Bilboko Jesus Maria eta Jesuitinak batuko dira datorren ikasturteetik aurrera, eta ez da giro: proiektuarekin haserre, Jesus Maria ikastetxeko ehundik gora familiak beste zentro batean matrikulatu dituzte seme-alabak datorren ikasturterako, eta irakasleak ere ezkor dira, greba mugagabe bat tarteko.

Atzerago bagoaz, pare bat adibide jartzearen, arestian aipatu dugun kasuak, Eibarko Itzio zentroa Mogel Isasi ikastetxean integratu zenekoak, kritikak jaso zituen. 2017ko irailerako iragarritako fusioak, apenas hilabete batzuk lehenago, 2016ko abenduan, "zalantza, galderaz eta kezka beteta" zuen Mogel Isasiko guraso elkarteak. Makina bat galdera zerrendatuta, honelaxe salatu

"Oso hezkuntza proiektu desberdinak ditugu eta ez dago adostasun nahikorik", zioen Langile eskolak. Bere beldurra egia bihurtu zen: Langilek erabiltzen zuen metodologia pixkanaka desagertzen joan zen, fusioaren ondorioz

zuten: "Hezkuntza proiekturik gabe ari dira fusioa gauzatzen, ikastetxe berri bat martxan jartzeko nahitaezkoa eta parte-hartze zabalaren bidez osatu beharrekoa izan arren". Gaur egun, kasik markada bat geroago, halaxe mintzatu da ondorioez Enrike Sosola orduko gurasoa, sare sozialetan: "Makro-ikastetxe publiko bakarrean pilatuta ditugu DBH eta Batxilergoko ikasle guztiak. Eskola-komunitatearen zatiketa probestu zen erabakia inposatzeko, eskola bat ixteko. Erabaki ekonomiko huts-hutsa izan zen. Eta gurasoon artean, haserre, etsipena eta ezina".

Hernaniko bat-egitea aipagarria da, beste hainbat kasutan salatu izan den presazko prozesu inprobisatuaren aldean, lanketarako tartea izan baitzuten ikastetxeek, Batzorde Pedagogikoa eta Batzorde Teknikoa osatu zuten eta bileak egin zituzten, baina horrek ez zuen guztien adostasuna lortu. 2005ean, herriko ikastetxe publiko guztiei DBHko ikasleak institutu bakarrean bateratzea proposatu zien Hezkuntza Sailak, alegia Urumea, Elizatxo eta Langile eskolei. Langile zen ikasle gehien zituena, baita kritikoena ere, eta hala azaldu zuen 2010ean, *Hernaniko Kronika* egunkarian: "Gogor egin zen lan, ikastetxe bakoitzaren hezkuntza proiektua aztertuz, gutxieneko adostasun batzuetara iristeko helburuarekin. Hezkuntza Delegazioak hitz eman zuen prozesua hasi aurretik lan horren emaitza errespetatuko zuela. Baina herriko ikastetxe publikoek oso hezkuntza proiektu desberdinak ditugu, era oso desberdinean ikusten dugu irakaskuntza, eta bi urteko lan horren guztiaren ondorioa izan zen ez zegoela adostasun nahikorik aurrera egiteko".

Kuriosoa da, uneotan Adurza eta San Ignaciorekin gertatu den gisan -pare bat urteko prozesua egin, gero eten, eta orain bat-batean neurria aldebakarrez hartu-, orduan ere berdin gertatu zela salatu baitzuen Langilek, artikuluko horretan bertan: "Bi urtez fusioaren berririk eduki gabe egon ondoren, 2009an erabateko inposizioa eta erasokorra den agindua eman du Hezkuntza Delegazioak, 12-18 urte bitarteko fusioa gauzatu dela, nahiz eta inolako proiekturik gabeko eskola jarri nahi duten martxan, eta elkarrekin egon nahi ez dugun komunitateak elkarrekin egotera behartzen gaituzten". Beste bi eskolek ez zuten gaizki ikusi bateratzea, baina ondorioa garbia izan zen: Langilaren beldurra egia bihurtu zen eta ordura arte erabiltzen zuen Freinet metodologia, lan-tratuen bidez ikasleen parte-hartze aktiboa sustatzea xede zuena, pixkanaka desagertzen joan zen, fusionatutako hezkuntza etapan, DBHn.

Adibide positiborik aurkitu dugu, halere. Edo bederen, hala gogoratzen du Zestoa herriko eskola publikoaren eta ikastolaren arteko fusioa Joxeba Larrañagak. Bai, publikoa eta itunpekoa, halako kasuren bat edo beste aurki dezakegulako han-hemenka, Antzuolako eskola publikoa eta ikastola elkartu zirenean bezala, 1981ean. Zestoa, 1980ko hamarkada erdialdean batu ziren bi zentroak, eta garai hartan eskola publikoko irakaslea zen Larrañaga. Jakina bizi izan zituztela kezka, mesfidantzak eta desadostasunak; "halere, orokorrean esango nuke bai irakasleek bai gurasoek apustu egin genuela herrirako eskola bakarren alde, eta behin elkartu eta gero guraso askorekin izan ditugun hartu-emanek berretsi digute emaitzarekin pozik geratu dela gehiengoa".

Hainbat gako eman dizkigu Larrañagak. Abiapuntuan, adibidez, erabakia ez zen soilik administrazioarena izan, ikastetxeek ere partekatu zuten fusionatzeko helburua: "Herri bat, eskola bat" ideia nagusitu zen, nolabait". Beste faktore inportante bat: "Eskola publikoan sartu ginen lanean belaunaldi gazte bat, ideia berriekin, argi zuena euskarak oinarria izan behar zuela eta eskola euskaldundu behar genuela; euskara ardatz nagusietakoa izan zen bateratze prozesuan. Azken finean, momentu jakin batean zein dagoen erabakigarria da, eta guri egokitu zitzaigun guraso eta irakasle asko herrikoak ginela, inplikatuak, herriari hezkuntza proiektu ahalik eta



Koop
mitxelena
MEKANIZATUAK

Neurri handiko piezen
mekanizazioan espezialistak

LRQA CERTIFIED
AS 9100

LRQA CERTIFIED
ISO 9001

Eziago industrialdea 21, HERNANI
943 55 25 12 - 16
info@talleremitxelena.eus
www.talleremitxelena.eus



FREEPIK

onena eskaintzeko gogoz". Prozesuak urte batzuk iraun zituen eta administrazioak, irakasleek eta guraso elkarteek hartu zuten parte solasaldi eta bileretan. Irakasle guztiek lanpostua mantendu zutela ere nabarmendu du Larrañagak.

"Zuek eta gu' gatazka gainditzeko balio izan zuen fusioak, eta guztia elkarrekin josi genuen. Bateratu ginenean, akabo talka hori"

**Joxeba Larrañaga,
irakasle ohia**

"Ordura arte, soziologikoki bananduta geunden: ikastola euskalduna zegoen batetik, eta gure eskola publikoa bestetik, 'nazionala' deitzen ziotena; Zamorako irakasleekin-eta partekatzen genuen klaustroa, eta ikasleen artean baserritarren seme-alabak genituen. Pentsa, egunerokoan euskaraz bizi ziren umeak eskolan euskaraz ezin ikasi. 'Euskaldun/maketo', 'nazional/ikastola', 'zuek eta gu' gatazka gainditzeko balio izan zuen fusioak, eta guztia elkarrekin josi genuen. Bateratu ginenean, akabo talka hori".

Dena den, garbi mintzatu zaigu zestoarra: "Egoera hau momentu zehatz batean gertatu zen, toki eta jende zehatz batekin. Ez da ezeren formula". Aurrerantzean ere, hezkuntza komunitate bakoitzak bilatu beharko du bere formula, jaiotze tasaren jaitsierari emango zaion aterabi-deetako bat ikasleak gero eta eskola guxtiagotan kontzentratzea izango bada. ●

ESTREINALDIA



ATERPEA

Diskurtso faxisten dikan dauden herritarren aterpe

hamaika

**Martxoaren 12an hasita
asteazkeneo 21:30ean
Hamaika Telebistan**



BIHARAMUNEN LANTEGIA

Zer ikertu herritarrek erabakitzen dute

Ikerketa parte-hartzailea eta gogoetatsua bultzatzen du Biharamunen Lantegia kooperatibak, eta zientzia eta ikerketa herriarengana hurbiltzeko lan egiten du. Duela urte eta erditik egoitza Bidarten dauka, eta Institut Curie-rekin elkarlanean Iker Herria ikerketa zentroa sortzeko lanean ari da. Biharamunen Lantegiko bitartekari Loretxu Bergouignan-ekin eta Livio Riboli-Sasco-rekin hitz egin du ARGIAk.

 JULEN UGARTEMENDIA CARCEDO  SABINA HOURCADE

Zientziaren, ikerketaren eta herritarren artean dagoen distantzia handia izaten da, baina bada tarte hori murrizteko lan egiten duenik. Horren adibidea da Biharamunen Lantegia –frantsesez, L’Atelier des Jours à Venir– ikerketarako eta irakaskuntzarako kooperatiba, gizartearen eta ikertzaile-komunitatearen artean bitartekaritza zientifikoa egiten duena. Ikerketaren praktika “herritar ororekin” partekatzeke konpromisoa hartzen du kooperatibak, bereziki testuinguru sozial, ekonomiko eta politikoa zailei aurre egin behar dieten pertsonen, eta ikerketa gaiak zehazteko orduan zaugarrienak diren biztanleengana jotzen du. 2011. urtean sortutako kooperatibak duela urte eta erdi ezarri zuen bere egoitza Bidarten (Lapurdi), eta gehienbat Frantziako Estatuan jardun duen arren, jarduna Euskal Herrian saretzeko asmoa du.

Biharamunen Lantegiak herritarrak modu parte-hartzailean inplikatzeko lan egiten dituen ikerketetan eta ikerketa-praktika “gogoetatsu eta arduratsuak ezartzeko” lan egiten du. Loretxu Bergouignan ikerketaren adarretik dator eta neurozientzietan espezializatuta dago. Biharamunen Lantegiko bitartekarietako bat da. Berak azaldu du kooperatibak egiten duena “ikerketa kokatua bideratzea” dela, eta ikerketa-gaiarekiko bizipenak dituen jendea dela ikerketa akademikoa bideratzen duena: “Fase guztietan kontrola jendeak hartzen du, eta elkar sorkuntza bat egiten da talde horren eta ikerlari taldearen artean”. Ikerketa egiteko taldea osatzean –normalean, bost eta hamabost kide arteko taldeak–, urtebete edo biko harreman edo dinamizazio prozesua hasten da, saioak egiten dira erregulari eta taldekideen arteko ezagutza trukea ematen da. Kooperatibako bitartekariak

bertan egoten dira taldeak egiten dituen gogoeten inguruan feedback-a emateko, eta ikerketa alorreko ezagutza akademikoak helarazteko. Ikerketa parte-hartzailearen fase guztiak zehatz-mehatz azalduta daude lantegiaren webgunean, baita ikerketa horren emaitzak nola zabaldu eta erabiliko diren ere.

Ikerketa egiteko proposamena hiru iturritatik etor daiteke: gaiak eragiten dion jendeak berak eskatuta, kooperatibako ikertzaileek edo kooperatiba ezagutzen duten kanpoko ikerlariak proposatuta, edo instituzioek eskatzen dutenean. Livio Riboli-Sasco Biologian eta Ekologian graduatua da eta jarduera zientifikoetan parte hartu du Biharamunen Lantegiko bitartekari moduan. Berak azpimarratu du instituzioekin lan egiterakoan “oso garrantzitsua” dela “mugarik gabe” aritzea. Bergouignanek gehitu du jendeak “askatasun osoarekin” erabaki behar duela ikerketa-gal-



Bidarteko egoitzan, ezkerretik eskuinera, Livio Riboli-Sasco, Loretzu Bergouignan eta Lukas Barandiaran langileak, eta Leïla Perié kooperatibako kidea.

dera, eta “instituzioak edo boteredunak presente” badira, “jendea bideratzen” dutela. Ikertzaileek ere jendea bideratzea ez du ontzat hartzen kooperatibak.

ASKOTARIKO IKERKETA-LERROAK, ETA AURREIKUSEZINAK

Kooperatibak ikerketa parte-hartzaile bat abiatzerakoan, ikertuko duen gaia zehazki zein izango den jakin gabe lan egiten du. Bergouignanek azaldu du gai orokor batekin has daitekeela ikerketa, baina horrek ez duela esan nahi ikerketa gai horri buruzkoa izango denik, eta azkenean lantzen duten arloa oso zehatza izaten dela.

Bergouignanek Lisboatik gertu dagoen Almada (Portugal) hirian 2014tik 2022ra gauzatutako ikerketa parte-hartzailearen adibidea eman du. Almada ingurukoa zen eta kooperatiba ezagutzen zuen ikerlari batek eskatuta, hiriko Bigarren Torrao aldiriko txaboletan bizi ziren pertsona talde batekin ikerketa egin zuen kooperatibak. Aldiria olatuek urpetzen zuten urtero neguan, eta udalak gertaera hori erabiltzen zuen bertan bizi diren bizilagunak kanporatzeko, Bergouignanek azaldu duenez. Hasiera batean bertakoek uste zuten ikerketa

“Guk egiten dugun lanak zerbitzu publikoa izan beharko luke. Nahiz eta konstituzioetan idatzita dagoen ezagutzaren garapenean denek parte hartzen dutela, gezur handi bat da”

Loretzu Bergouignan
Biharamunen Lantegiko langilea


pobreziaren inguruan egingo zela, baina azkenean matematika eta fisikaren artekoa izan zen: “Inori ez zitzaion burutik pasa olatuei buruzko proiektu bat sor genezakeenik”, dio Riboli-Sascok.

Herritarrei begira, ikerketa parte-hartzailearen bitartez, olatu horiek debideratzeko modu bat aurkitu zuten, eta

bestalde, Bergouignanek nabarmendu du ikerlariari begira, “sekulako aurkikuntza” izan zela, olatu mota hori ez zelako “lehenago inon deskribatu”.

Biharamunen Lantegia gaur egun garatzen ari den proiektu bat hilekoaren ingurukoa da, eta Bergouignanek adierazi du ez dakitela azkenean ikerketa biologiaren ingurukoa izango den, edo, adibidez, soziologiaren esparrukoa. Askotarikoak dira kooperatibak landu dituen ikerketa-lerroak. Horietako batzuk filosofia, soziologia, historia, edo neurozientzien ingurukoak izan dira. Azken arlo horri dagokionez, Riboli-Sascok Molins de Rei-n (Katalunia) 2013tik 2019ra egindako ikerketa aipatu du, non koloreek pertsonen ikaste gaitasunean zuten eragina ikertu zuten.

Kooperatibak gaur egun abian dituen edo aurreikusita dituen ikerketa batzuk dira, esaterako, lehen aipaturiko hilekoaren ingurukoa, endometriosiari, oihangintzari, gizarte-zentroei, kultur-gintza politikoari eta errepresioari buruzkoak, laborariekin eta arrantzaileekin dituzten zenbait proiektu eta aldirietako populazioetatik dituzten eskaera batzuk –esaterako, Madrilgo San Cristóbal de los Ángeles auzoan gauzatzen ari diren



ikerketa bat-. Dozena bat proiektu dituzte esku artean. Ikerketa horietako baten berri astekari honetan eman genuen, urtarrilean. Hainbat arrantza ereduaren ondorio sozial, ekonomiko eta ekologikoak azaldu genituen *Handiak txikia jaten du* erreportajearen.

IKERKETA ZENTRO AITZINDARIA SORTU NAHI DUTE

Bidarten egoitza ezarrita, Euskal Herrian geroz eta lan gehiago egin nahi du kooperatibak, eta proiektuak bertan gehiago zentratu.

Proiektuetako bat ikerketa-praktiketan esperimendatuko duen Iker Herria ikerketa-zentro "aitzindari eta sortzailer" da eta "lankidetzaren estua" izango du Institut Curie-rekin –minbiziari buruzko Frantziako Estatuko ikerketa zentro nagusia-. Riboli-Sascok adierazi du kooperatibak hamar urtez lan egin duela Iker Herria ikerketa-zentroa sortzeko, baina prozesu luzea eta zaila dela. Iker Herria urtebete barru irekitzeko asmoa

"Gure helburua da ikerketa publiko gehiago sortzea Ipar Euskal Herrian. Hego Euskal Herrian badira unibertsitateak, ikerketa zentroak... baina Ipar Euskal Herrian gutxi dago"

Livio Riboli-Sasco
Biharamunen Lantegiko langilea

dute. "Gure helburua da ikerketa publiko gehiago sortzea Ipar Euskal Herrian. Hego Euskal Herrian badira unibertsitateak, ikerketa zentroak... baina Ipar Euskal Herrian gutxi dago". Bergouign-

nanen arabera, gaur egun Ipar Euskal Herrian "ez dago oinarritzko zientziarik" eta "ezin da funtsezko ikerketarik egin", gai jakin batzuekin "oso lotuta ez bada" –esaterako, euskara-. Riboli-Sascok azpimarratu du Ipar Euskal Herriak eskubidea duela edozein ikerketa egiteko aukera izateko.

ZERBITZU PUBLIKOA BEHAR ZUENA

Bidarteko egoitzan lau langile ari dira beharrean, eta lantaldea handitzea baino indartzea da haien asmoa. Proiektu, ikertzaile, unibertsitate eta mugimendu gehiago ezagutzeko prestutasuna agertu dute. Bergouignanez aipatu du beraiek egiten duten lana zerbitzu publikoa izan beharko litzatekeela, eta azaldu du nahiz eta konstituzioetan idatzita dagoen ezagutzaren garapenean "denek" parte hartzen dutela, "gezur handi" bat dela. Biharamunen Lantegiak "beste ikerketa bat posible" dela defendatzen du. ●

MITROVICAKO ZUBIA

Bi komunitateren arteko haustura

Kosovoko gerratik 25 urte pasatu diren arren, tentsioa nabaria da iparraldean bizi diren bi komunitate nagusien artean: albaniarrek eta serbiarrak. Azken bi urteetan gertatutakoek zauria gehiago ireki dute eta egoera gaiztotu da, bereziki Kosovska Mitrovica hirian. Hiria bitan zatitzen duen zubia da horren lekuko. ARGIA han izan da.



1961. urtea zen eta Ivo Andric idazle jugoslaviarrak literaturako Nobel saria irabazi zuen *Zubi bat Drinaren gainean* maisulanagatik. Visegrad hiriak –egungo Bosnia-Erdi Aroan izandako distira kontatzen du eleberriak, bereziki Drina ibaia zeharkatzen duen zubiarekin lotutako istorioak. “Mundu kristauaren eta islamiarraren arteko zubia” zen hura, Andricen esanetan.

Titoren Jugoslaviaren urrezko garaia zen, etnia guztien arteko anaitasunaren garaia, dozenaka gutxiengo eta hizkuntza babesten zituen herrialdearen garaia. Egun batetik bestera, adiskidetasunak gerra bortitzari eman zion pasoa eta zubiek zibilizazioak elkartzetik zatitzera pasatu ziren. Mostar da adibiderik garbiena, baina ez bakarra.

Ibar errekarren bazterrean dago Kosovska Mitrovica, Kosovo eskualdean. 25 urte pasatu dira gerra bukatu zenetik. Balkanetako azken gerra da eta zauriak artatzen ari dira oraindik. “Denbora behar da gudaren ondorioak osatzeko”, dio Saleh Hol-

tik, hiriaren hegoaldean bizi den albaniar gazteak. 31 urte ditu eta gerra sei urterekin bizi izan zuen. “Oraindik hunkitzen nau bizi izan nuenak, baina aurrera egin behar da”.

Ibar errekarren hegoaldean gaude, eta hiriaren alde honetan albaniarrek dira gehiengoa. Errekaren bestaldean serbiarrak bizi dira, Ipar Mitrovican, haiek dioten bezala. Zubiak banatzen ditu bi komunitateak.

“Ez dut nahi zubia zabaltzea, ez naiz albaniarrez fio”, esan digu errekarren iparraldean bizi den Vida Vucetic-ek. 24 urtez itxita egon eta gero, duela bi urte zubia autoei zabaldu nahi zietela azaldu digu, baina Kosovoko eskualdean izandako hainbat gertakariren ondorioz ideia baztertu zuten. “Banjskako gertakariak eta gero beldurrez bizi naiz eta zorionez zubia itxita mantentzea erabaki dute”, dio Vucetic-ek.

Urte luzez hirian egoera lasaia izan duten arren, bi komunitateen arteko tentsioak areagotu dira 2023tik hona. Urte horretako maiatzean egindako udal hauteskundeetako serbiarrek boikot egitera deitu zuten, eta Kosovoko

autoritateek alkate albaniarrek ezarri zituzten gehiengo serbiarreko udalerrietan. Horrek haserrea eta protesta bortitzak piztu zituen eta ondorioz Kosovoko Poliziak Zvečan, Zubin Potok eta Leposavić herrietako udal txekak indarrez hartu zituen. Dozenaka atxilotu eta zauritu eragin zituzten istiluek. Geroago “Banjskako gertakariak” etorri ziren, 2023ko irailean. Zvečan udalerriko Banjska herrixkan 30 militante serbiar armatuk Kosovoko Poliziaren unitateak zelatatu eta gutxienez agente bat hil zuten. Eraso-tzaileetako hiruk bizitza galdu zuten eta sei atxilotuak izan ziren, haien artean Milan Radoicic, Aleksandar Vucic presidente serbiararen konfiantzazko gizona eta Kosovoko Serbiarren Zerrenda alderdiko buruzagietako bat. Berriki egin diren hauteskunde parlamentarioetan alderdi bozkatue-na izan da Kosovoko iparraldean bizi diren serbiarren artean.

Kosovoko instituzioekiko “ezkor” izan arren, serbiarren %40ak hauteskundeetan parte hartu zuela azaldu digu Vida Vucetic-ek, berak barne.

“NAZIOARTEKO KOMUNITATEA HIRIA OKUPATZEN ARI DA”

Zubia oinez zeharkatu eta hiriko hegoaldera itzuli gara. Zaintza lanetan diharduen Italiako Carabinieri talde baten aurretik pasa gara. “Egoera aski lasaia da”, dio agente batek. Albaniar aldera iritsi eta KF Trepca, hemengo futbol taldearen muralak ongietorria ematen digu. 1978an Jugoslaviako Kopako finalera heldu zen eta NK Rijeka talde kroaziarraren aurka galdu bazuen ere, izen handia eta ospea eman zizkion. Gerrak, ordea, egoera guztiz aldarazi zuen: taldea bitan zatitu zen, KF Trepca albaniar aldean eta FK Trepca serbiarrean. Jugoslaviar distira itzalita, hiria ez dela garai bateko hiri oparoa uste du askok, tartean Kosovoko Polizian diharduen gizon batek.

Poliziak debekatuta du prentsarekin hitz egitea eta beraz izen-abizenak ez argitaratzea eskatu digu. “Esango dizut gauza bat, zintzotasunez, nazioarteko

komunitatea Mitrovica ari da okupatzen. Ez dute eskualdea utzi nahi eta ondorioz lurraldea okupatzen ari direla esan genezake”, dio haserre. “Dirua baino ez zaie interesatzen eta hemen dauden birtartean dirua irabazten jarraituko dute”.

57 urte ditu poliziak eta bere familiarekin batera hiri kanpoaldean bizi da baserri batean. “Daukadan soldatarekin nahikoa dut bizitzeko nahiz eta egoera ekonomikoa gero eta zailagoa den”. Jugoslaviaren garaia askoz hobeak zirela dio: “Tito maite genuen, guztiok egiten genuen lan. Orduko Kosovo leku ederrena zen benetan”, dio nostalgiaz. Gerra baino lehen hiriaren iparraldean bizi zen, beste hainbat albaniar bezala. “Hiriko lekurik ederrena zen. Han zeuden tabernarik modernoak, eskaintza kultural oparoena, unibertsitatea, eta beste”. Orain, dio penaz, “ez naiz hainbeste joaten”. Serbiarrekin eta gainerako gutxiengoekin arazorik ez duela dio, “ez orain ezta lehen ere”.

Jugoslavia sozialista desegin eta gauzak aldatzen hasi ziren. Langabeziak gora egin zuen eta kosovoar askok migrazteko hautua hartu zuen, baita berak ere. Horrela, 1990eko hamarkadan, Alemaniara, Essen hirira, joan zen lan egitera. Han bi urte eman zituen Kosovora itzuli baino lehen. “Kosovoko gerra hasi eta Alemaniatik bueltatzea erabaki nuen. Nire jendea defendatu behar nuela erabaki nuen. Betebehar moral hutsa zen”. Horrela, UÇKn –Kosovoko Askapenerako Armada, albanieraz– izena eman eta borrokari ekin zion.

Mitrovicako eskualdean borrokan aritu zela azaldu digu. Ondoren, jakina den bezala, NATOko soldaduak eta KFOR misioa iritsi ziren Kosovora eta Mitrovica eskualdea Frantziako armadari egokitu zitzaion. “Gu laguntzera baino, gure lurra okupatzera etorri ziren”, dio eta “noski, arazoak izan genituen haiekin. Haiek zatitu zuten hiria bitan”.



Italiako Polizia Mitrovicako zubian. / REUTERS



"Kosovo Serbia da" (errusieraz) eta "Krima Errusia da" (serbieraz) dioen murla Mitrovica iparraldean. / AFP

Gerra amaitu eta kasik hamarkada bat geroago, 2008ko otsailean, alde-bakarreko independentzia aldarrikatu zuen Kosovok, herrialde askoren kritiken artean, besteak beste aurretik erreferendumik egin ez izanagatik. Hamazazpi urte pasa dira ordutik eta Mitrovica hegoaldeko biztanleria pozik agertzen da: "Historian pasatu zaigun gauzarik handiena da independentzia, orain libre gara. Indartsuak gara, badugu Polizia eta armada, eta ez dugu gehiago behar", dio pizzeria bateko langileak.

Albaniar banderak nonahi, UÇKri eskainitako oroitarriak... Gerrillariak heroiak dira hemen. Ibar errekaen bestaldean ordea, iritzia guztiz kontrakoa da. AEBen eta Europako herrialde batzuen babesa izan zuen UÇK-k, baina Serbiako Gobernuak terroristatzat hartzen du oraindik taldea. Nazio Batuen Erakundeak gerrillak serbiar zibilen aurka egindako gehiegikeriak eta krimenak salatu izan ditu. NBERen datuen arabera, Mitrovican gutxiengo etniko ez-albaniarren aurkako jazarpena izan da. Asko dira hiritik alde egin behar izan duten serbiar, bosniar eta turkiarrak.

"ALBANIZAZIO" PROZESUA MARTXAN

Omer Ibrahimiri orain dela hamabost urte iritsi zen Mitrovica iparraldera eta Balkanetan hain famatua den Burek janaria prestatzen du serbiar gehiengoaren eremuan. Gorania da jatorriz Ibrahimiri. Bere ziki Kosovo hegoaldean bizi den musulman eslaviar etnia osatzen dute goraniek. "Mendiko jendea" da, *Gora* hitzak mendia esan nahi du eslavieraz, eta torlak hizkuntzan mintzo dira, bulgariar dialekto bat. Guztira 80.000 pertsona dira.

Ibrahimiren familia 1939an heldu zen hona Dragasetik, Sar mendikatetik, eta Mitrovicako hegoaldean instalatu ziren. Jatetxe bat ireki zuten 1970eko hamarkadan eta Kosovoko gerrara arte normaltasun osoz bizi izan zirela kontatu digu. Gerra eta gero arazoak hasi eta bertatik ihes egitea erabaki zuten, albaniarrekin egoera "jasa ezina" zelako. Orduan iritsi ziren iparraldera eta serbiarren artean "babesa" sentitzen dutela dio Ibrahimik.

Jatetxetik pixka bat beherago, zubitik ez oso urrun, Kralja Petra kalea Mitrovicako gazteen topagune bilakatu da. Egun eguzkitsua izanik, tabernak gainezka daude. Soilik 'Mehana' izeneko taberna

dago hutsik, Kosovoko bandera erakusten duen ostatu bakarra. "Orain dela bizpahiru hilabete ireki zuten hegoaldeko etorritako albaniarrek. Probokazio hutsa da", azaldu digu Vucetic gazteak.

Zonaldean irekitako bigarren lokala da eta "ohiko" bilakatzen ari den praktika dela salatzen duten hemengoek. "Tabernak zabaltzen dituzte hemen gu pixkanaka albanizatzeke asmoarekin".

Albanizazio prozesua martxan dela uste dute serbiarrek eta Kosovoko presidente Albin Kurtiri leporatzen diote. Vucetic-en esanetan, hiriaren iparraldean lokalak irekitzeagatik ordaintzen diete albaniarrei. EBk eta AEBek ere gogor kritikatu dituzte Kurtiren politikak, "tentsio etnikoak" sortzen dituztelako.

Vetëvendosje (autodeterminazioa albanieraz) alderdi sozialdemokrata eta nazionalistako kide da Kurti eta otsaileko hauteskundeak irabazi zituen bozen %42rekin. Polemikaz betetako hauteskunde kanpaina burutu zuen. Serbiarren artean haserre handia piztu zuen eta etsai amorratu diren bi komunitateen arteko zauria handitu: "Albaniarrei lana dugu eskaintzeko, serbiarrei ordea Polizia, militarrek eta elkarrizketa eskainiko dizkiegu". ●



Eneko Leyun

“Desgaitasunaren eta eskiaren mundua deskubrimendu bat izan da”

Orain arte desgaituak ez diren pertsonekin lehiatu da Uharteko Ipar Eski Taldeko Eneko Leyun eskiatzailea (Iruñea, 1998). 2024-2025 denboraldian, lehenengo aldiz parte hartu du Adimen Urritasuna duten Pertsonentzako Iraupeneko Eskiko Espainiako Txapelketan. Urrezko dominarekin itzuli da etxera.

 OLAIA L. GARAIALDE

Hiru edo lau urterekin jantzi zituena iraupeneko eskiak Eneko Leyunek. Ordutik, amarekin eta lagun batekin Somportera (Okzitaniako Pirinioak) joateko ohitura hartu, eta gutxinaka ikastaroak egiten hasi zen. Hamabi urte inguru zituelarik, Uharteko Ipar Eski Taldean sartu eta lehiatzen hasi zen. Otsailaren 16an, Larra-Belaguako pistetan, Adimen Urritasuna duten Pertsonentzako Iraupeneko Eskiko Espainiako Txapelketa irabazi zuen. Zazpi minutu eta erditik gorako aldearekin irabazi ere: “Oso harro eta pozik nago, hodei batean bezala”.

Orain arte desgaituak ez diren pertsonekin lehiatu da, ez zekielako desgaituak direnentzako txapelketak ere badirela. Horregatik, txapelketa ospatzen den zazpigarren urtea den arren, Leyunek lehenengo aldiz parte hartu du: “Taldekide baten ahizpa desgaitua da, eta bere amak erakutsi zigun

“Kirolean ikusgaitasun handiagoa eman behar zaio desgaitasunari. Oso gai gara gauza asko egiteko”

desgaitasunaren mundu hau. Esan zigun ongi moldatuko nintzela. Desgaitasunaren eta eskiaren mundua deskubrimendu bat eta oso berri ona izan da”. Orain arte, horrelako txapelketaren berririk ez izatea, desgaitasunaren eta kirolaren inguruan dagoen desinformazioarengatik dela uste du: “Kirolean ikusgaitasun handiagoa eman behar zaio desgaitasunari. Oso gai gara gauza asko egiteko”.

Nabarmendu du urrezko domina lortu izanak ate berriak ireki eta gauza “positibo” ugari ekarri dizkiola: “FED-DIkoek [Adimen Ezintasuna duten Pertsonentzako Kirolen Espainiako Federazioa] esan zidaten asko gustatzen zaiela nola eskiatzen dudana, Nafarroa mailan onena naizela eta munduko txapelketan parte hartzeko aukera izanena dudala”.

Pertsona desgaituekin zein desgaituak ez direnekin lehiatzen da Leyun eta batetik bestera alde “handia” dagoela dio: “Desgaitasunik gabekoen kontra lehiatzen nuenean, gehiago kostatzen zitzaidan ibilbidea ulertzea, eta gauzak bi edo hiru aldiz azaldu behar zizkidatzen”. Hori dela-eta, txapelketen aurretik behin eta berriz errepasatzen du ibilbidea, eta bidegurutzeak eta bihurtuneak non dauden ongi aztertzen du.

Desgaituak ez direnekin lehiatzen jarraitzen du, pertsona desgaituentzako txapelketa gutxiago daudelako.

Martxoaren 8an eta 9an izan ziren Nafarroako eta Euskadiko iraupen eskiko txapelketak, eta hirugarren gelditu zen klasikoko modalitatean. Hala ere, “gusturago” sentitzen da desgaituak diren pertsonekin: “Ez daukat ezer desgaitasunik gabeko pertsonekin lehiatzearen kontra, baina ezberdintasuna handia da”.

DISTANTZIA MOTZETAN

Leyun distantzia luzeetan entrenatzera ohituta dago eta egin ohi dituenak baino distantzia motzagoak izaten dira desgaitu intelektualentzako txapelketetakoak: “Distantzia motzetan gusturago sentitzen naiz”. Hala ere, uste du distantzia luzeek gehiago trebatzen lagundu diotela. Bere amak eskiarekiko duen harremanean izan duen eragina ere azpimarratu du: “Amak piztu zidan eskiarekiko grina. Amari esker eza-gutu ditut eskiaren mundua, natura, mendia eta elurra”.

Leyunek bukatutzat eman du aurtengo denboraldia, eta 2025-2026ko denboraldian ikusiko du zer-nolako aukerak dituen. Hala ere, ez ditu entrenamenduak albo batera utziko. Elurrak iraun bitartean, eskiatzen jarraituko du. Horrez gain, aste barruan zein elurrik ez dagoenean, rolleskian aritzen da. Iraupen eskiaren antzekoa da, baina elurrik gabe eta errepedean praktikatzen da. Horretarako, gurpilak dituzten eski moduko batzuk erabiltzen dira. Rolleskiak, eskiak ez bezala, oso motzak eta metallezkoak dira: “Elurra mila aldiz gehiago nahiago dut”. ●



GORPUTZEKO ATAL BAT?

“Bihotza.
Sentimenduak
daudelako”.



LEYUNEK UTZIA

EKOEDIZIOA



ARGIA hedabide aitzindaria: aldizkaria ekoeditatua izango da

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Badira ia bi urte ARGIA Kataluniako Ekoedizio Institutuko bazkide dela eta 2023az geroztik argitaratutako liburuek ekoedizio zigilua daramate, denok jakin dezagun, batetik, ekoedizio hori egiaztatzeko irizpideak bermatzen direla eta, bestetik, zein den liburu horren argitalpenak utzitako arrasto ekologikoa. Eta karbono aztarna, sorturiko hondakin edo energia kontsumo kopuruak gramotan eta g CO2 eq. bezalako neurgailu konprenitzen ez hain sinpleetan emateaz aparte, herritarroi errazago ulertarazteko alderaketa polit bat ere jartzen du taularen azpian: “Ale honen arrasto ekologikoa autobusez 21’99 km bidaia zearen parekoa da”. A, hori bai, hori hobeto ulertzen dut; alegia, Zarautzik Donostiara turistaz betetako autobus batek (bidaia horretan) kutsatzen duena, gutxi gora-behera.

Pauso bat gehiago eman berri du ekoedizioan ARGIAk. Orain arte argitalpen jakinetara, liburuetara mugatzen zena astekarian eta *Bizi Baratzeari* Orria-n aplikatzen hasi dira, maiztasun batekin egiten diren argitalpenetan. Al-


dizkari guztiak izango dira, hemendik aurrera, ekoeditatuak, ingurumenarekiko errespetuzkoak, eta astekari bakoitzak eramango du hori berresteko zigilua, ondoan QR bat duela, inork aldizkari horren arrasto ekologikoa zein den zehatz ezagutu nahiko balu, kontsultatzeko.

Ez da ARGIAk berak bere buruari jarritako marka, noski. Esan bezala, Kataluniako Ekoedizio Institutuak ematen ditu zigiluok, hala dela berresteko zehaztutako hamabi irizpide kontuan hartuta.

ZER DIOTE INSTITUTUKOEK GUTAZ?

“Guretzat ARGIA bezalako proiektu bat bazkide izatea ez da bakarrik zigilu hori Euskal Herrira zabaltzea; esan nahi du geroz eta gehiago garelako egiteko beste modu jasangarriagoetan sinesten dugunak”, azaldu digu Marta Escamilla Kataluniako Ekoedizio Institutuko kideak. “ARGIAk egiteko modu oso hausnartuak ditu eta antzeko baloreetan oinarritzen gara bidea egiteko. Edizioaren eta pa-

Sarean eduki guztiak irekita zuri esker



Arrazoi hauek eman dituzte egun hauetan ARGIA Jende egin diren kide berrietako batzuek, komunikabide independente hau ekonomikoki babestu eta proiektua bultzatzeko. Ongi etorri denei, komunitatera!

“”

Euskal errepublikara bidean herri honek aldizkari eta hedabide euskaltzale, antifaxista, ekologista, feminista, ezkertiar eraldatzailea eta independentea behar duelako.

Bilbotik Ekaitzek

“”

Aspalditik jasotzen ditut notiziak e-postaz eta asko gustatzen zait. Pentsatu dut diruz laguntzea, behingoz.

Aiatik Jaionek

peraren mundu hau ez da kutsadura handia sortzen duen sektorea, nahiz eta bakoitzak dugun geure ardura; baina gure lanik handiena dibulgazioan eta ideien eta baloreen zabaltzean dago. Horretan jarri nahi dugu indarra eta ARGIA horren parte da”, azaldu du. “Badago aldizkariaren bat badaramana zigilu hau, baina asteroko maiztasunarekin argitaratzen denik ez da izan orain arte, ARGIA da lehena. Jada ez da argitaletxe batek egiten duen apustu puntual bat, zerbait berezia, egiturazko aldaketa bat da eta horrek proiektua leku batean kokatzen du”, azpimarratu du.

Bada, 2911. zenbaki honetatik aurrera, astekari honek ekoedizioaren zigilua eramango du. ●



Homosexualen aurkako Bilboko auzitegia



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Bilbo, 1954. Hiriko Alfer eta Gaizkileen Auzitegia homosexualen aurka jazartzen hasi zen, erregimen frankistak izen bereko legea (*Ley de Vagos y Maleantes*, 1933) espresuki horretarako egokitu ondoren. Frankismoak homosexualen aurka egiten zuen lehenago ere, eta 1970ean legea bertan behera utzi ondoren ere jarraituko zuen. Baina 1954-1970 tarte horretan homosexualen berariazko tokia izan zuten legedian.

Bilboko auzitegiaren jardunaz ezer gutxi aztertu da berriki arte. Bizkaiko Agiritegi historikoan auzitegiak homosexualen aurka tramitatutako 117 espediente daude gordeta. Antonio Pérez Embeita historialariak espediente horietan oinarritu du *Historia Social* aldizkariaren azken alean argitaratu duen lana.

Artikuluak agerian uzten duen lehen datua da epaitutako gehienak erruduntzat jo zituztela: 117tik 89. Legeak askotariko kondenak jaso arren, gehienei 3-6 hilabete bitarteko kartzela zigorra ezarri zieten.

Kasu gehienak gizonezko gazteenak dira, 30 urtez azpikoenak, bereziki 16-20 adin tartekoak. Horrek esan nahi du adin txikikoak ere epaitu zituztela, nahiz eta Alfer eta Gaizkileen Legeak berak halakorik galarazten zuen. Gainera, gehienak kualifikazio txikiko lanetan edo langabezian zeuden, errepresio frankistaren transbertsalitatearen adierazle. Horrez gain, epaituek ez zuten abokatu propiorik kontratatzeke aukerarik izan. Kasu guzti-guztietan beren alde lan kasikarra egin zuten ofiziozko abokatuak egokitu zizkieten.

Auzitegiaren jarduna ez zen Bizkaira mugatu, atxiloteta gehienak Bilbon bertan eta, neurri txikiagoan, Donostian egin arren. Hirietan, auzitegiak eta Poliziak “*invertido*-en bilgune” nagusiak kontrolatzen zituzten, esaterako, Naxa kaia Bilbon eta Kontxako pasealekuko bainu publikoak Donostian. Eta, hala ere, epaitutako gehienak etorkinak ziren; Gipuzkoako 32



Bilboko Naxa kaia 1958an. Bilboko Alfer eta Gaizkileen auzitegiaren arabera, garai hartan puntu hori homosexualen bilgune nagusietakoa zen.

kasuetatik soilik erdia ziren gipuzkoar jatorrikoak. Guztira, bizkaitar jatorrikoak 19 izan ziren eta beste guztiak kanpotik etorritakoak ziren, nagusiki Galiziatik.

PERBERTSIO SEXUALAREN ADIERAZLEAK

Ez zituzten ekintza homosexualengatik epaitzen “homosexualak izateagatik” baizik. Eta nola frogatzen zuten izaera hori? Hasierako urteetan argudio soil eta laburrak jasotzen dituzte espedienteek, baina 1960tik aurrera berniz pseudozientifikoak jantzi zituzten azterketa forentseak. Hona hemen adibide bat: “Osaera arrunteko genitalak, tamaina nahiko txikikoak. Sakonera ahuleko uzkie, esfinter eroria, baina ez gehiegi. Izaerari dagokionez, irekia da, zuhurtziaz hitz egin arren, eta ongi definituak

eta tipifikatuak ditu bere perbertsio sexualaren adierazleak, bere itxurakeria, janzkera eta txukunkeriagatik (nahiz eta makillatuta ez egon). Nahiko egatia da, subjektu hauen artean batere ohiko ez dena, eta horrek bere alde jokatzeko du, hezkuntza maila jasoa adierazten baitu bere tara ulertzeko eta gutxitzeko, ukatzeko ez badu ere”.

Kopuruari dagokionez, Pérez Embeita dio kasu gutxi direla. Baina dokumentazio faltari egozten dio hori. Urte batzuetan espediente bat bera ere ez dago, eta Bilboko auzitegiaren eskumenean zeuden Errioxan nahiz Kantabrian kasurik ez zen izan, nonbait. Ziurrenik urte eta probintzia horietako dokumentuak galdu direlako –edo oraindik agertu ez direlako– dela uste du historialariak. Eta, hala ez balitz ere, kasu “gutxi” horiek gehiegi dira. ●

SAMARIAR BALTSAMOA



GARBIÑE LARREA
ITURRALDE

Sare sozialen kontra hitz egitea ondo dago, beno, nire inguruan ondo ikusia bezala dago sare sozialek dakartzaten kalteez eta txarkeriez aritzea; progre gelditzen da bat horrela jardunda, baina gaur alde hitz egin nahi dut. Ez ni optimista digitala nauzuelako, baizik eta sare soziale-tatik gauza onak ere badatozelako. Irakurleen komentario, iritzi, iradokizun eta ekarpenak kasu. Sarri-sarri jasotzen ditut eta poz ematen didate, esan beharra daukat.

Berriki idatzi dit Anek Instagrameko pribatutik. "Nire aita zure liburuen oso zalea da eta mesedez zuri mezu hau helarazteko eskatu dit. Duela 50 bat urte Donostiako Santa Teresa klausurako lekaimeek Bálsamo Samaritano ukenduaren formula eman omen zioten eta galdu baino lehen zuri bidaltzeko eskatu dit". Atxikita argazki bat dauka, paper horizta maiztu bat, mekanografiaz idatzitako letra gandutu batzuk eta bertan formula bat txukun antolatutako kontzeptu, kopuru eta jarraibideekin.

Arnasa sakon hartu eta begi ertzeko malkoa lehortu dut, halako gauzak hunkigarriak egiten zaizkidalako. Askotan esan izan dut sendabelarren inguruko jakintza gure herriaren ondare immateriala dela baina halako elementu materialak jasotakoan ikusten dugu oraindik ere etxe askotan daudela halako altxorak, zabaldu eta hedatzeko zain. Eta

horretara nator, dagokidan arduragatik eta niri Iñigo Urtzelaik eta bere alaba Anek eskuzabalki helarazi didatena zuek ere edukitzeko, hau inorena izatekotan denona delako.

Oliba olioia 500 gr, Lagarto edo Lizarriturri xaboia 500 gr, argizari freskoa 500 gr, ozpina litro erdi (ardo txuriarena bada hobe), zerri gantz ona 140 gr, Veneziako trementinaren koilarakada bat, kainaberaren karraka-hautsa (korapilotik korapilora doana), belar zoragarriaren 400 hosto (ez balego, honen faltan, berbena edo pasmo-belarra). Horiek osagaiak eta gero prozedura landu samar bat, zehaztapen asko eta asko dauzkana.



DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

Halako formulek lanak ematen dituzte, egia da, baina gustuko lanak. Veneziako trementina delako hori zer ote zen ikertu, azukrea kainaberan nola lortu eta korapilotik korapilorako kopuru hori zenbat oten den jakin, belar zoragarria deitzen dion hori zein ote den ziur jakin, gaur egun ukenduaren ipini nahi ez ditugun xaboi solidoek eta ozpinak zer egiten ote duten ikertu, ozpin zuriak zein berezitasun ote duen ere bai... Ikusten duzuenek, ez da samurra halako formula bat berreskuratzea, aurrena ulertu egin behar baita.

Gainera, segurtasun eta eraginkortasun irizpideak bete behar ditu, bestela ez da eman behar egiteko pausorik; azalarentzat segurua izango dela eta nahikoa printzipio aktibo edukiko dituela ziurtatu egin behar da. Hemen lagun farmazialariei eta laborategirako sarbidea duten lagunei mesedea eskatzea tokatzen da, aurre frogak egin ahala ontziratzen ari garen ukendu hori iker dezaten.

Gero ikerketa etnografiko eta antropologikoa dago, zein kontestutan eta nork egindako formula ote zen jakitea. Klausurako lekaimeak tartean izanda gardentasun handirik ez da espero behar, Elizarekin egingo dugu topo. Ez dakit nora eramango nauen honek guztiak baina bigarren artikuluko batean segida emango diot gaiari. Aginduta geratzen da. ●



Bizi Baratzea
Lurrari begiratzen diogunon Orria



eginbizibaratzea.eus

Kide egiteko arrazoiak

"Lan bikaina egiten duzuelako, segi holaxe!
Jakintza askatasuna da"

Olaia, Eibartik

A ZE FAUNA!

LAMIA OINAK BUELTAN DIRA



IRATI DIEZ VIRTO

Ugaztunei eskainitako azken artikulua amaierako hitzak hurrengo animalia aurkezteko aitzakia paregabea dira. Bertan esaten genuen muturluzeak erreka “garbi eta txukunak” behar dituela, kutsadurarik gabeak baina elementu natural anitzekin. Animalia txiki horren etorkizuna kolokan dugu gaur egun, baina, zorionez, egoera hobea da beste ugaztun erdi-urtar batentzat. Igarabak ere erreka txukun eta garbiak behar ditu bizirauteko, eta azken urteetan ur-ibilguetan egin diren hobekuntzak medio, hedatuz doa gure lurraldean.

Igaraba (*Lutra lutra*) itxura maitagarriko ugaztun ertain bat da. Maitagarria diot haren lehengusu itsastarra (itsas igaraba) sare sozialetan erruz azaltzen den animalia horietako bat delako. Biralak ere egin dira itsas igaraba in-

fluenzerrak, Japonian maskota modura dituztenak. Euskal Herrian dugun igaraba antzekoa da itxuraz, baina ez da itsasoan bizi, erreketan baizik. Arrainez, karramarroz eta intsektu txikiez elikatzen da batez ere, eta erabat moldatuta dago bizimodu erdi-urtarrera.

Lamien gisan, lau oinetako hatzak mintz interdigital batez elkartuta ditu, igerilari trebearen seinale. Buztana ere uretan mugitzeko aproposa du, luze eta zabala. Ilaje iragazkaitz trinkoak gorputzeko beroa mantentzen laguntzen dio bustita egonda ere, eta ur azpian sudur-zuloak itxi ditzake; horrela, hainbat minutuz egon daiteke ur azpian arnasa hartu gabe.

Ugaztun berezi hau Iberiar penintsula osoan agertzen zen duela urte batzuk, baina 1950. urtetik aurrera egundoko beherakada jasan zuen, bereziki inguru

IGARABA

Lutra lutra

TALDEA: Ornoduna / Ugaztuna.

NEURRIA: 95-125 cm muturretik buztan puntaraino. 6-9 kg arrek eta 4-6 kg emeek

NON BIZI DA? Ekosistema urtarretan, kostatik goi-mendietaraino.

ZER JATEN DU? Arrainak, karramarroak eta intsektu txikiak.

BITXIKERIA: Lurraldea eta erabiltzen dituzten baliabideak gorotzen bidez markatzen dituzte, eta presentzia baieztatzeko erabiltzen dira.

BABES MAILA: “Galzorian” dago Espezie Mehatxatuen EAEko Katalogoaren eta Nafarroako katalogoaren arabera.

populatueta. Bi izan ziren beherakada horren arrazoi nagusiak: ehiza eta bere habitataren eraldaketa. Euskal Herriko ibaien kanalizazioek, presek, erriberako landarediaren suntsipenak eta kutsadurak asko murriztu zuten igarabaren banaketa. Gipuzkoan eta Bizkaian desagertutzat jo zen 1960-80ko hamarkaden bueltan.

Zorionez, azken hoge urteetan populazioaren gorakada nabaritzen hasi da, eta gaur egunera arte mantendu egin da joera hori. Badirudi espeziea pixkanaka berreskuratuz doala, desagerrarazi zuten faktore batzuk hobetzen joan direlako. 2023ko ikerketen arabera, gaur egun Gipuzkoako eta Bizkaiko arro guztietan aurki daitezke igarabaren arrastoak (Ea ibaian izan ezik).

Pozgarria da igaraba berriro Euskal Herriko ibaietan izatea, bioaniztasuna berreskuratu denaren seinalea delako. Baina, horretaz gain, igaraba bioadierazletzat hartzen da, hau da, bere presentziak ur masen egoera ekologiko ona islatzen du. Animalia sentibera izanda ere, bueltan da, beraz. Azken finean, esker onekoa da natura; lekua ematen badiozu, ederki asko loratuko da. ●



ESTEBAN ARANGO

ILARGIKO BORDA, LURRA ETA ILINTIA



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Bada Borda bat ilargian. Bai, bai, Borda izeneko krater bat badu ilargiak; talka krater edo astroblema bat da, ilargiaren ageriko aldean dago eta bere koordenadak $25^{\circ}12'S$ $46^{\circ}31'E$ dira; inguruan 11 krater satellite ditu. Akizen jaiotako Jean Charles Borda de la Croixi (1733-1799) omen egiten dio. Borda horren aita Euskal Herritik hurbil dagoen Labatuteko jauna zen. Abizen euskalduna eta militar petoen kasta zituen. Jean Charles astronomo, fisikari, marinel eta militarra izan zen. Frantziako Zientzia Akademian sarrera hitzaldia *Memoire sur le mouvement des projectiles* izan zen. XVIII. mende hartan lurraren forma eta bere neurketekin itsu-itsu, gogoia menderatua zuten. 1795ean sistema metrikoa ezarri zuten, bera zen aita pontekoetako bat. Ez alferretan bere izena Eiffel dorrean urrez margotuta dauden 72 jakintsuen artean dago. Asteroide batek ere bere izena darama: (75726) Borda. Australiako Kanguru uhartean Borda lurmuturra dago; eta uharteari berari Borda uhartea izena jartzeko proposamena Nicolas Baudin kartografo eta esploratzaileak egin zuen. Antartikan ere, Borda harkaitza bada. Parisen edo Lillen galtzen bazara, agian Borda kalean zaude. Bere jaioterriko museo batek eta lizeo teknologikoak, Marinako zenbait ontzik eta abarrek bere izena daramate.

Lurraren neurrien zehaztasunak biltzeko bidean, lankide izan zuen Mathieu Tillet, agronomo eta botanikaria bera, 1714-1791. Frantziako



Jean Charles Borda de la Croix astronomo, fisikari, marinel eta militarra.



Mathieu Tillet agronomo eta botanikaria. Bera eta Borda tartean ziren Akademiak, metro batek zenbat neurtu behar zuen definitu zuen.

Zientzia Akademiako partaide izan zen, eta, metalurgialaria ere bazenez, berak jaso zuen benetako neurriak jangongo zituzten metalezko piezak sor-

tzeko agindua. 1766an, toesa (1,949 metro) neurri frantses oinarritzkoaren 24 kopia egin zituen. Bera eta Borda tartean zituen fisikari, matematikari eta abarrez osaturiko Akademiaren neurrien batzordeak, 1791n, iraultza giro betean, metroak zer-nolako neurria izan behar zuen azaltzen duen txosten sonatua aurkeztu zuen. Ordura arteko beste proposamenak ipularreko luartokira bota eta honela definitu zuten: meridianoaren koadrantearen hamar milioirena. Paristik igarotzen den meridianoarena, noski! Hori dugu metroa, harrapazank! Gure lurrak, alorak, sailak, soroak, elgeak, baratzeak, neurritara ekartzeko erabiltzen dugun metroa.

Tillet jaunak nekazaritzarekin emanhartu handia zuen, eta lan ugari egin zuen alorren alorrean. Batez ere gariari heldu zion, eta saritua izan zen bere tesia, galburuetako aleak hondatzen eta belzten dituen kausari eta istripu horiek saihesteko bideei buruzkoa. Garia onddo batek alferrik galdu eta belzten du (baita artoa ere, *Zea mays*); hemen "ilinti" esaten zaio. Onddo horri mende baten ondoren, *Tilletia tritici* izena jarri zitzaion, Tillet berari omen. Ilintiari "lodo", "lodoi" eta "ludo" ere esaten zaio Bizkai aldean, ludoi horren berri Erramun Guericagoitiak ederki jakinarazi didan eran. Milesker, Erramun. Gipuzkoako Goierri aldean "astaputz" eta Bizkaian Gernika aldean "atsaputz" ere esaten zaio. Gaitz gogorra izan da mendeetan eta galsoro osoak suntsitzen zituen, eta gehiago Euskal Herri hezeko lurralde ezko eta bustietan. Horrela ulertzen da Jean Duvoisinek bere 1858ko *Laborantza liburuan* jaso zuen esaera: "Ez da ogi arras ilinti gaberik".

Makina bat Tilleten metro koadro galsoro galaraziko zuen Tilleten ondokoak. ●

KOLOREKO

LANDAREETATIK ERATORRITAKO ILE-KOLORATZAILE NATURAL ETA EKOLOGIKOAK



GARAZI ZABALETA

Donostiako Amara auzoko Izko ileapaindegi ekologikoak 40 urte bete berri ditu. Familia-entrepresa txikia da, eta hasieratik izan zuten sortzaileek ile-apainketan erabiltzen ziren produktuekiko kezka. “Erabiltzaileen azalarentzat oso bortsitzak dira produktu gehienak, baina baita profesionalentzat ere. Hori ikusita, alternatiba ekologikoen bila hasi ziren gure osaba-izebak”, azaldu du Oihana Otaegi Izko KolorEKO proiektuko kideak. Familiaren ogibideari segida eman diote ondorengo belaunaldikoek eta ile-apaindegia mantendu dute, baina 2014an, proiektuaren adar berri bat sortu zuten, ilerako koloratzaile natural eta ekologikoen marka propioa: KolorEKO.

LANDAREEN EZAUGARRI PIKTORIKOAK

Alternatiba bila landareetara jo zuten osaba-izebek. “Garai hartan ezagunena Henna zen, *Lawsonia* landarea, eta horrekin hasi ziren probak egiten”, azaldu du Otaegik. Henna denbora luzez eduki behar da ilean, ordea, eta ile-apaindegiko denbora mugatuari erantzunen zioten bestelako landareen bila hasi ziren munduko herrialdeak bisitatzen: Maroko, Turkia, Iran, India eta beste zenbait tokitan izan ziren. “Konturatu ziren pigmentua zuten bestelako landareak erabiltzen zituztela toki horietan, eta handik osagai natural eta ekologikoak eskuratu eta kimikari batekin formulazioak egiten hasi ziren”, dio.

Profesionalei begirako produktuak sortzea zen helburua hasieran, eta tonalitate eta ile mota guztietako koloratzailer natural eta ekologikoak eskaintzen dituzte KolorEKO: ile ilun, argi, gaztain kolore nahiz ile-horrientzat. Koloratzaile



gisa eta bestelako tratamenduetarako, berriz, bost landareetatik eratorritako lehengaiak darabiltzate: *Lawsonia Inermis* –henna–, *Indigofera Tinctoria*, *Cassia Auriculata*, *Phyllanthus Emblica* –Indiako andere-mahatsa–, *Hibiscus Sabdariffa* –hibiskoa– eta *Trigonella Foeniculum*. “*Lawsonia* eta indigoa dira koloratzaileak, besteek bestelako ezaugarriak ematen dituzte: dizdira, bolumena...”. Pandemiaren geroztik, profesionalentzat ez ezik, jendearentzat 100 gramoko paketeak ere ekoizten dituzte.

KONTZIENTZIA ETA FORMAZIO FALTA

KolorEKO darabiltzaten landareak klima zehatzekoak izanik, jatorrizko herrialdetik ekartzen dituzte gurera, Indiatik batik bat. “Garai batean, hona ekarri eta nahasketa guztiak hemen egiten genituen, baina gama txikiarekin hasi gi-

nenean asko zaildu zen, makina gehiago behar zirelako. Orain, gure formulazio propioak hara bidaltzen dizkiegu, eta han egiten dizkigute nahasketak”, argitu du Otaegik. Nekazaritza ekologikoko ekoizpenekin ari dira elkarlanean, zigilu ekologikoarekin.

Norbanakoentzako gama txikia eskaintzen hasi zirenean, kaleko jende asko profesionalak baino kontzientziatuago dagoela ohartu ziren KolorEKO kideak. “Kontua da ile-apainketako formazio profesionalak produktu kimikoetara oso lotuak egon direla beti, eta orokorrean, ez dela besterik erakusten”, dio kideak. Eskoletan alternatiba ekologikoagoak erabiltzen irakastea ezinbestekoa da egoerari buelta emateko, Otaegiren ustez. Momentuz, belardenda eta ile-apaindegietan saltzen dituzte produktuak, Euskal Herrian eta Espainiako Estatuan barna. ●

Zertaz ari garen ezer gertatzen ez denean, edo hiru idazle errealista

Anton Txekhov, Raymond Carver eta Alice Munroren ipuingintzari buruzko mahai-ingurua egin dute Iker Sancho, Harkaitz Cano eta Isabel Etxeberria idazle eta itzultzaileek, Ignacio Aldecoa zenaren ipuin literarioaren jaialdian, Gasteizen. Beñat Sarasolak gidatuta, autore horiek euskarara ekartzearen esperientziaz eta eraginaz jardun dute EHUren Campusean.



LARRAITZ FAGUNDEZ OSA



JAZKI FONTANEDA / FOKU

Ipuingintzaren tradizioan lerro nagusietako bat da errealismoarena eta, horixe da, hain zuzen ere, Txekhov, Carver eta Munro idazleak lotzen dituen haria. Bizi izan zuten munduaren erretratuak dira haien ipuinak. "Ezer gertatzen ez den ipuinak" direla esan ohi da, baina gertakari gutxiarekin asko kontatzen dute garaiari eta gizarteari buruz.

Anton Txekhov da errealismo horren lehen erreferentea. XIX. mende bukaerako idazle errusiarrak gaurkotasan handia du: "Harrigarria da hogeitaz urterekin Txekhovak bere gizartearekiko zeukan ikuspegia. Oraindik orain, hil eta 121 urtera, gai baldin bada gaur egungo jendea hunkitzeko, zerbaitegatik da". Hala azaldu du Iker Sancho (Lazkao, 1975) EHUKo irakasle eta itzultzaileak, Txekhoven *31 Ipuin* (2022) antologiaren egileak. Luzea da errusiarrak literaturan utzi duen arrastoa, eta nabarmena XX. mendeko idazleengan izan duen eragina, Carver eta Munroengan, besteak beste.

ERREALITATE GORDINA, NARRAZIO LABURRETAN

Txekhoven narrazioetan gizartearen erradiografia zabalagoa egiten dela uste du

Sanchok, eta Carver eta Munroren ipuinetako eszenarioak, berriz, mikroskopikoak direla baieztatu du Harkaitz Canok.

Idazlea eta itzultzailea da Cano (Larsarte-Oria, 1975), Raymond Carver estatubatuarren poesia itzuli du. Hara Txekhov eta Carver lotzen dituen bitxikeria bat: Carverrek idatzi zuen azken ipuinak, Canok itzulitako bakarrak, Txekhoven heriotza kontatzen du. Aurrekoekiko ezberdina da, eta garai berri bat ireki zuen estatubatuarren literaturan. Gazte hil zen Carver, ordea, Txekhov bezala, eta ezin jakin daiteke nola emango zion bide hasi zuen aro berri horri.

Ezer gertatzen ez denean gertatzen dena erakusteko gaitasuna, horixe da Carverren bertuterik handiena Canoren hitzetan. Antzeko zerbaite idatzi zuen Galianok Txekhovi buruz: "Ezer esaten ariko ez balitz bezala idatzi zuen, eta dena esan". Carverren ipuinetan tentsioak sostengatzen du narrazioa, eta Canoren ustez, hori oso zaila da lortzen. "Ipuina erresonantzia kaxa bilakatzen du: objektu, pertsonaia eta hitz kolokialen oihartzun eremua".

Canoren arabera, Txekhoven pertsonaiak haien patuaren kargu hartzen saia-

tzen diren bitartean, Carverrenek onartu egin dute beraien eremutik kanpo gertatzen direla bizitza eta benetan garrantzia duten gauzak; eta etsipenez, bortxaz edo zinismoz erreakzionatzen dute maiz. Munroren kasuan, askotan, bizitzari norabide aldaketa eman nahi dioten emakumeak dira pertsonaiak, egoera itogarri batean aterabidea bilatzen dutenak.

Alice Munro kanadarrak ere pertsonen arteko harremanetan eta egunerokotasunean jartzen du arreta. Hor ere egiten dute bat hiru idazleek, Isabel Etxeberriak dienez. Munroren *Etsaiak, lagunak, ezkongaiak, maitaleak, senar-emazteak* itzuli du Etxeberriak (Donostia, 1975). EHUKo irakaslea da eta Susaren Munduko Poesia Kaiarak-en editore.

Munroren ipuinekin ere ezertxo ere gertatzen ez denaren irudipena izan zuen hasieran, irakurraldi gehiagorekin konturatzeko baietz, pisu handiko gertaerak daudela, behin bakarrik irakurrita ikusten ez diren arren. "Konturatu nintzen badela ipuin bat non pertsonaia nagusiaren senarrak gaixotasun degeneratibo bat duen eta bere buruaz beste egiten duen. Beste batean protagonistak minbizia du, beste batean alzheimerra,

beste batean batek seme txikia hil zuen kotxearekin harrapatuta. Tratu txarrak ere ageri dira”. Egon badaude gertakariak; kontua da ez direla narrazioaren elementu zentrala, beste zerbait kontatzeko oinarria baizik: “Munrok ikusarazi nahi duena kontatzeko aitzakia dira, pertsonaien arteko mendekotasun eta kontrol harremanak”.

UMOREA, TXISTEA BAINO GEHIAGO

Etxeberriaren ustez, Munrok konplizitatearen erakitzaren du irakurlearekin, eta horrela lortzen du umorea: “Irakurlea eta idazlea gurasokeriaz ari dira begiratzen pertsonaiak zertan ari diren. Pertsonaiak hor barruan daude, gauzak egiten ari dira, erreakzionatzen gertatzen denari, eta batzuetan oso paradoxikoa edo umoretsua da patuak nora eramaten dituen ikustea”.

Txekhovek egoera absurdoak eta irri-garriak eraikitzen zituen, ironiaz zerbait edo norbait barregarri utziz, Sanchoren arabera. Sufrimendua, axolagabekeria, eroskeria dira errusiarrak landutako gaiak eta, nolabait paradoxikoki, “umo-

re tristea edo tristura umoretsua” darabilela esan ohi da. Ez da barre algaraka hasteko umorea, baina irribarrea aterakodio irakurleari. Umorea ez baita txistea, Canok gehitu duenez: “Beste gauza bat da, askoz handiagoa, finagoa, eta zailagoa lortzen”. Carverren pertsonaiek ere erabiltzen dute umorea eta ironia, “batzuetan gaizto, beste batzuetan xamurtasunez, beste batzuetan autodefentsa modura”.

NORAINO HELTZEN DA ITZULPENAEUSKAL LITERATURAN?

Canok irudipena du idazten hasi zenean, 1990eko hamarkadan, literatura gutxi zegoela eskuragarri, eta zegoen horrek, beraz, eragin handiagoa zuela. Carver izan zen garai horretan bolo-bolo ibilizen autoreetako bat. Susmoa du Canok erabiltzen zuen hizkeragatik bihurtu zela garai hartako euskal idazleen autore maitatuetakoa bat, deskribatzen zuenagatik baino gehiago: “Idazketa minimal eta lehor horrek ez ote zuen bat egiten gure izaerarekin? Ez ote zetorkien ondo hizkuntza sinple, labur eta informalean idazten zuen erreferente bat? Zerbait hi-

ritarragoa, agian, garai horretako euskal idazleei galdegiten zitzaiena bezalakoa”.

Irismenari buruz, sentsazio gazi-gozoa du Etxeberriak. Euskarara ekartzen diren liburuek komunikabideetan tokia dutela iruditzen zaio eta sona hartzen dutela. Baina, era berean, gogora ekarri du euskal idazle guztiak elebidunak direla eta hizkuntza hegemonikoetara gehiago jotzen dela. “Munroren bi liburu daude euskaraz, baina bere obra osoa dago gaztelaniaz eta frantsesez. Norbaitek aurkituko du, agian, Caver edo Munro euskaraz, baina hortik erdarara pasako da. Oxala, baina ez dut uste itzuli dugunak baldintzatuko duenik euskaraz egingo dena estilo edo idazketa aldetik”.

Literatur sistema minoritarioa da gurea Sanchoren hitzetan ere, eta gabeziak oso handiak dira, klasiko asko falta dira. Hala ere, gutxi dagoenez, dagoen horrek ikusgarritasun handia duela nabarmendu du. “Nik aldarrikatu nahiko nuke gure txikitasun horrek badituela alderdi onak. Eutsi diezaiegun dauzkagun potentzialtasun horiei: ahalik eta gehien itzuli dezagun, ahal dela garaikidea ere bai”. ●



Beñat Sarasola, Isabel Etcheberria, Iker Sancho eta Harkaitz Cano.

Kresalezko amodio birtuala

Adolfo Bioy Casares (1914-1999) idazle argentinarrak 1940an idatzitako *La invención de Morel* (Morelen asmakizuna) eleberria mugarriztat jotzen da gaztelaniaz idatzitako literatura fantastikoaren esparruan. Nobela motza bezain sakona da, aparta bere bakantasunean, batez ere generoak nahasteko eta iraultzeko erakusten duen ahalmenagatik. Lagun min zuen Jorge Luis Borgesek lan “perfektua” zela esan zuen, nobelaren ahalegin berritzailea tarteko.

 JULEN AZPITARTE

La *invención de Morel* liburua genero fantastikoari lotzea, idazle argentinarraren lana gutxiestea litzateke. Ehun orrialde eskasean, askotariko generoak eta kontzeptuak biltzeko kapaza da Bioy, hala nola detektibe-nobeletako trama, bakardadea, maitasuna, zinemako teknikak edota errealtate birtuala, hori guztia irla batean kokatuta.

Morelen itzala hainbat diziplinetara zabaldu da –Wikipedian jasotako erreferentziei begiratua ematea baino ez dago eragin horren dimentsioaz jabetzeko—. Bada, eleberriak aurten 85 urte beteko ditu, eta urteurren horren harira, Ellice irletara, egun Tuvalu gisa ezaguturikoan kokatutako Villings uhartera bidaiatuko dugu, iheslari bakarti bati loratuko zaion maitasuna betikotzeko asmoz.

Jorge Luis Borges idazleak, *La invención de Morel* liburuko hitzaurrearen egileak, zera esan zuen: “(Adolfo Bioy Casaresek) mirarien Odisea bat zabalitzen du, zeinak ematen duen haluzinazioa edo sinboloa beste gakorik onartzen ez duen, eta guztiz deszifratzen du naturaz gaindikoa ez den postulatu bakar baten bidez”.

IRLA USTEZ BAKARTIA

“Gaur, irla honetan, miraria gertatu da: uda aurreratu egin da”, esaldi zoragarri horrekin abiatzen da liburua, nabigazio bideetatik kanpo dagoen uharte batera iritsi den iheslari baten istorioa kontatzeko. *Iheslaria*, letra larriz: hori baino ez dugu ezagutuko protagonistari buruz.

Uhartearen ustez hutsik dago, ez da inor bizi. Harik eta protagonistak hotel edo bainuetxe itxura duen eraikin bat topatuko duen arte. Bertan ostatu hartzen ari den turista talde bat ezagutuko dugu. Horietako batek, Faustine izeneko emakumeak, gure protagonistaren jakin-mina piztuko du, andrearekin grinatsuki maitemintzeraino. Emakumeak, baina, ez dio kasu ziztrinik ere egingo. Izan ere, ematen du Faustinerentzat iheslaria ikusezina dela. Egoera honek deskribatzen du protagonistak: “Ez zen izan entzun ez banindu bezala, ikusi ez banindu bezala; belarriak entzuteko balio ez balute bezala izan zen, begiek ikusteko balio ez balute bezala”. Egoera arrotz horren aurrean, iheslaria detektibe bihurtu eta ikertzen hasiko da; las-ter jakingo du turistek behin eta berriz

errepikatzen diren gertakizunak bizi dituztela, eta ez direla haragizko gizakiak, baizik eta irudiak, proiektzio halografiko baten bidez mugitzen direnak, egungo errealtate birtualean nola. Iritsiko da antzematera sistema teknologiko horren arduraduna turisten artean dabilen Morel izeneko asmatzailea dela.

Kontakizunari erantsitako izaera tekniko horren bitartez, Bioyk bestelako dimentsio fantastiko bat sortzen du, zeinak generoaren konbentzio ezezagun bat sortzen duen; izan ere, ordura arte, literatura fantastikoan oso ohi-koak ziren irudien edo mamuen erre-presentazioak. Baina argentinarraren kasua erabat desberdina da: Morelen asmakizunak benetako izakiak irudietan harrapatzen baititu, izakiok eternitate espektral batean betikotzeko.

Zientzia fikzioan aditu den Teresa Lopez Pellisa ikerlari espainiarraren arabera, “Morelen makinak errealtate birtual moduko bat sortzen du, teknologia zinematografikoaren eta holografikoaren arteko fusioan oinarritua, zeinak uhartearen astebeteko oporraldia errepikatzen duen, betirako itzulera lazarrian murgildua”.

Horren guztiaren jatorria Bioyk txikitatik zinearekiko zuen pasioan aurkitzen da –grina hori oso agerikoa zen XX. mende hasierako hainbat idazle latinoamerikarengan–. Idazlea txikitatik izan zen zinemazale sutsua. Amak, baina, txikitari debekatu egin zion zine-aretoetara joatea. Heldu ahala, ordea, zinemazale amorratu bilakatu zen, eta bere biografia nabarmentzen denez, zine mutuko emakumezko aktoreekin maitemindu zen, hala nola Louise Brooksekin; Faustine pertsonaia, hain justu, aktore horretan inspiratzen da.

“Nire oroitzapen intimoenak filme-tako gogorapenekin uztartuta daude. Baina ez dakit zer neurritan eragin duen zinemak nire narrazioetan”, hitzok Carlos Dámaso Martínezek 2007an plazaratutako *El arte de la conversación. Diálogo con escritores latinoamericanos* liburu-koak dira. Bioyk argi zuen, baina, bere eleberria “tranpa bat izan daitekeela zinemazaleentzat”, testua film baten bidez kontatzeak dakarren zailtasunengatik, zineak berak istorioan duen garrantzia tarteko.

ZINE ARETO BAT

“Munduaren amaierari itxaroteko aukeratuko nukeen lekua zine areto bat izango litzateke”, aitortu zuen Bioyk bere memoriari, 1994an. Bada, *La invención de Morel* zinemara eramateko Bioyk aipatutako zailtasunak gorabehera, eleberri labur horren eragina agerikoa da ikus-entzunezkoaren arloan, eta bere influentzia sarritan azaleratu da pantailatan.

1960ko urteetako modernitatearen ordezkari Alain Resnais zinegilea eta Alain Robbe-Grillet idazlea film bat egiteko bildu zirenean, azken horrek lau zirriborro eraman zituen. Zine zuzendariari laurak gustatu zitzaizkion, baina *L'Année dernière* (Pasa den urtea) izeneko aukeratu zuen. Filma aretoetara iritsi zenean, 1961ean, izenburuak *Marienbad* hitza gehituta zuen: *L'Année dernière à Marienbad* (Pasa den urtea Marienbaden). Hilario J. Rodríguez idazle eta zine kritikariak 2024ko hon-darretan plazaratutako *El año*

pasado en Marienbad. Recuerdos del futuro (Pasa den urtea Marienbaden. Etor-kizuneko oroitzapenak) liburuan biltzen duenez, *Marienbad* hitza gidoia lantzen ari zela erantsi zion Robbe-Grilletek izenburuari, hain zuzen, *La invención de Morel* iturri hartuta, liburuaren pasarte batean haxe irakurtzen baita: “Dantzan egiten duen jendea, paseoa ari dena eta igerilekuan igerian egiten duena, Los Tenquesen edo Marienbaden aspaldi finkatutako udatiarrak nola”.

Eleberriaren influentzia agerikoa izanagatik ere, Robbe-Grilletek eragin hori ukatu egin zuen filma estreinatuta egindako zenbait elkarrizketetan. Eleberria frantsesera itzuli zenean, 1950ean, Robbe-Grilletek *Critique* aldizkarian kolaboratzen zuen, eta Bioyren nobelaren inguruko testu bat proposatu zuen argentinarraren lana laudatzeko. Haatik, frantziarraren aburuz, liburuan jorratutako gai nagusiak hobetu zitezkeen: memoria, bakardadea eta iragana aldatzeko gaitasuna. Antza denez, nobelaren eragina oso nabarmena izan zen gidoia-


ren lehen zirriborroan, zeinetan pertsonaiek izen latinoak zituzten, nobelan kontatutako antzeko egoerak agertzen ziren eta istorioa irla batean gertatzen zen. Film enigmatikoak bi sari lortu zituen, Frantziako kritikaren Méliès saria eta Veneziako Zinemaldiko Urrezko Lehoia, bai eta Oscar sarietarako gidoi onenaren hautagaitza ere.

IRLA GALDUA: LOST

Morelen asmakizunaren izpiak telebista pantailara ere iritsi dira; esaterako, telesailen kulturean gaur arte iraun duen haustura eragin zuen *Lost* (2004-2010) laneko laugarren denboraldiko laugarren atalean, Sawyer izeneko pertsonaia *La invención de Morel* irakurtzen agertzen da. Telesailaren sortzaileak eleberriaren zaleak dira eta behin baino gehiagotan adierazi dute nobelatik zanga-zanga edan zutela telesaila sortzeko.


Hilario J. Rodríguezen iritziz, *Lost* telesailaren arduradunek *mashup* bat egin jakin zuten, zeinak *The Flintstones* eta *L'Année dernière à Marienbad* bateratzeko gaitasuna zuen, herri kultura goi kulturarekin aurreiritzirik gabe uztartuz, eta, era berean, *La invención de Morel*-en oinarritu ziren.

Telesailaren eta nobelaren arteko loturak, baina, ez dira beti hain nabarmenak, lausotu egiten baitira beren sotiltasunean. Halere, zantzu batzuk detektagarriak dira. Adibidez, irlan daudenek burua galtzeko duten arriskua. Telesailaren bigarren denboraldian, pertsonaietako batek, Hurleyk, gogoratzen du flashback baten bidez amak eroetxe batean sartu zuela. Nobelako iheslaria ere antzeko kinkan dago, bizi di-tuen gertaera sinestezinen zioa zoroetxeko egonaldi bat dela amesten duenean: “Bart haxe amestu nuen: eroetxe batean nongoen. Mediki batekin kontsulta luze bat izan ondoren (prozesua?), familiak bertara eraman ninduen. Morel zuzendaria zen. Laster jakin nuen irlan nengoela; laster sinetsi nuen eroetxean nengoela; laster eroetxeko zuzendaria nintzen”. ●





Gurutzegrama



EZKER-ESKUIN:

1. Janaria, bereziki animaliena. / Anitz, ugari. **2.** Mugatutako denbora bitartea. / Argazkiko mendia, gailurrera igotzeko lekurik ohikoena San Martingo Harria da. **3.** Harro. **4.** Gero, gerora. **5.** Geltokietan bidaiariak igo eta jaisteko nahiz kargak jaso eta jaisteko prestaturiko tokia. / Txitxirio. **6.** Hitzordu. / Irabazteko xederik gabeko erakundeak. **7.** Ustez. / Ernal hazia. **8.** Tokian. / Ozeaniako herritar.

GOITIK BEHERA:

1. Esnea ematen duen abere. / Sabeleko orbain. **2.** Haur hizkeran, musu. / Ene. **3.** Zein arrazoiengatik? **4.** Ferekatu. **5.** Zakurra. / Atzizki toponimikoa. **6.** Ezpeletako piperrez eginiko jaki. / Mehe. **7.** Antzinako su arma. **8.** Publizitate esaldi, labur eta adierazkor. **9.** Letra izena. / Beharlean. **10.** Erabat, txit. / Beisbol jokalaria. **11.** Nafarroako herria. **12.** Nuen, haiei. **13.** Hartu. **14.** Pisua, karga. **15.** Nafarroako herria.

Sudokua

ERRAZA


1	8	9			5	4		
2	5			9	8		6	3
		6	1			9	5	
5	4		2	7				
7		1				2	8	4
	3		8	4				1
	1			3	2	8	4	6
4	6	5	9	8				
		3	4	1			9	5

ZAILA

		3		6		2		
5	9			8			6	
			1		4		5	3
7	4			1				8
1	2		9				7	5
3			4			1		
		7			1			
							1	4
6								

Esaera zaharra

KOKA EZAZU PUZZLEAREN PIEZA BAKOITZA BERE TOKIAN ETA ESAERA ZAHAR BAT AGERTUKO ZAIZU.



Anagramak

HITZ BAKOITZAK AURREKOAK DITUEN HIZKI BERAK DITU, BAT IZAN EZIK, BAINA BESTELAKO HURRENKERAN.

Ubel	USPEL
Azao	
Baba	
Geun, gandu	
Bete	
Harpidetza sari	
Zerraldo, hilkutxa	
Usoak	
Aitzakia, estakuru	
Oilasko zikiratu	
Ogi txikia	
Lego	
Eserleku	AULKI

EBAZPENAK

ESANA ETA EGIA EZ DIRA
AUZO BEREAN BIZI

ATSOZITZAZA

AULKI
LAIKO
OPILA
KAPOI
APUKO
UXOAK
KUTXA
KUOTA
OSATU
LAUSO
PUSLA
ESPAL
USEPL

ANAGRAMAK

ERRAZA

6	3	1	8	4	8	5	2	7
9	8	2	6	5	7	3	1	4
4	5	7	3	2	1	9	8	6
3	6	5	4	7	8	1	6	2
1	2	3	6	3	6	4	7	5
7	4	9	5	1	2	6	3	8
2	7	6	1	9	4	8	5	3
5	9	4	2	8	3	7	6	1
8	1	3	7	6	5	2	4	9

ZAILA

8	2	3	4	1	6	7	9	5
4	6	5	9	8	7	3	1	2
9	1	7	5	3	2	8	4	6
6	3	2	8	4	9	5	7	1
5	4	8	2	7	1	6	3	9
7	9	1	6	5	3	2	8	4
3	7	6	1	2	4	9	5	8
2	5	4	7	9	8	1	6	3
1	8	9	3	6	5	4	2	7

ESKER-ESKUIN: 1. BAZKA, ASKO. 2. EPEA, ARLAS. 3. HARROXKO. 4. GERAGO, 5. NASA, BARBANTZU. 6. ZITA, FUNDAZIOAK. 7. IRITZIZ, ESPERMA. 8. LEKUAN. OZEANIAN. GOITIK BEHERA: 1. BEHI, ZIL. 2. APA, NIRE. 3. ZERGATIK. 4. KARESATU. 5. ORA, ZA. 6. AXO, FIN. 7. ARKABUZ. 8. SLOGAN. 9. KA, ORDEZ. 10. OSO, BASE. 11. AZPA. 12. NIEN. 13. TORI. 14. ZAMA. 15. UKAR.



Eta eromenaren lorratzetan dantzatu ginen

UDANE BARINAGARREMENTERIA LAKA EIDER ITURRIAGA

Izotz-arriskuaren seinalea autoko pantailatxoan. Urkiola, bere mendilerro eta baso. Kontzertuetara bideko ohiko errituala: Inoren Ero Ni eta Lisabö bozgorailuetatik. Ahots urratuak, elurra, Gasteiz. Coronación de la Virgen Blanca kalea, 4. ezkaratzea. Ilara desordenatua, zigarroak, enkontruak eta sorpresak. Besarkadak.

Sarrerak, zigilua azalean, epeltasuna. Jende ilara kontsignaren aurrean, bero-kiak eskuan. Atearen gainean, letra-zopa erraldoi bat: *Eta Edertasunaren Lorratzetan Biluztu Ginen Lorategi Izoztuan Hezur Hauts Bilakatu Arte (Lisabö 2016-2025)*. Hiru garagardo, 12 euro. “Ondo ikusteko, goian hobeto?”.

Bateria erdi-erdian, baxua eta gitarra alde banatara, abeslaria erdi ezkutuan. *Hona hemen, inoren ero ni. Gure deabru laztanak lagun gaitzala zuen ezinegona elikatzen*. Melodia asaldagarrien zurrumbiloa. Tronpeta txiki arraro bat. Dantza eklektikoak. Konpenetrazioa. “Ze onak diren kabroiak”. Irribarre konplizeak aurpegietan. Megafono bat oihuka. *Il cercatore*

di perle. Baketa bat baxuan. Ordena bat kaosean. Zirrara, musikari onak gozatzen ikustearena. Askatasuna performatzearena. Gonbidapen bat eta Javi Manterola oholtzan. *Eromena ez baita inorena. Ez baita inoren monopolio bihurtuko. “Agur adixkidiok”. Argiak eta reggae doinuak.*

“Ezin dituzue edariak atera”. Hotza. Kea. Pintadei eta pegatinei begira puxika hustea. “Beste garagardo bat?”.

Bandera palestinar bertikala apliarren gainean. Sei musikari, birako azken kontzertua hastear. Giza metronomo bi baterietan, bata bestearen erreflexu bairan. Oihu urratuen durunda. *Oinazearen intimitatea* eta kezka bat buruan bueltaka: nola kontatzen da zarata lakar, dentso eta poetiko honek sortzen duen elektrizitatea? Off ahots ezaguna bozgorailuetan. *Errautsaren bezpera. Berdin dio, ez zen inoiz aise izan hitz egokiak aurkitzea*. Orain, hemen. *Animalia lotsatuen lokatz-putzuetan*.

Mikroak jartzen teknikari lotsatu bi, poesiak zarataka jarraitu bitartean. Publiko artetik banda bat oholtzara, hai-

INOREN ERO NI + LISABÖ

NOIZ: martxoaren 14an.

NON: Gasteizko Jimmy Jazz aretoan.

zezko instrumentuak eskuetan dituztela, paper zuriz egindako trajeak soinean eta kartoizko kapelak buruan. Instrumentuz instrumentu hazten eta nahasten den desafio kolektibo bat. Zarata gehiago eta surrealismo dosia goraka. “Agian, eromena bada apur bat zuena” dioen barne-ahots bat. “Eta eskerrak” dioen beste bat.

Sei musikari berririo oholtzan, konplizitatea eta izerdia. Perfekzioa, halakorik existitzen bada. Publikoa makurtuta, isilaldia eta klimaxa. Mikrorik behar ez duten txilioak. Oilo-ipurdiak eta dantzak.

Beste gonbidapen bat eta Gorka Urbizu oholtzan. Mugikorrek publikoaren eskuetan. Zirkulu bat, zazpi instrumentu eta armonia. Azken blokea. *Eta edertasunaren lorratzetan*, begien irribarreak. “Eskerrrik asko bihotzez”, txalo-txistu zaparrada eta argiak. *Merchand-a*, bero-kiak, agurrak, errotondak, izotza kentzeko makinaren argiak.

Eta bidehUTSean, oharkabe, *gure bihotzak zapi batean goxo daramatzate*. ●



LIBURUA

Humanismotranshumanismo...



HUHEZI

**ZERO.
TRANSHUMANISMOA
ATE-JOKA
ERDI ARO BERRIAN
AITOR ZUBEROGOITIA**

JAKIN, 2024

AMAIA ALVAREZ URIA

Hasieran saiakera filosofiko-sozio-logikoa espero nuen, baina ez da hori liburu honetan aurkitu dudana bakarra. Izan ere, biografia fikzionalizatu batekin hasten da eta zati handiena hori da. Liburuaren muina Orlacheko Gerbert elizgizonari buruzko biografia nobelatua da. Haren ibilbideari jarraituta ezagutuko dugu nolakoa izan zen IX. mendetik X. menderako aldaketa.

Gerbertek ekarri zuen lehen aldiz Mendebaldera Ekialdean erabiltzen zen 'zero' zenbakia. Hala ere, bi mende geroago hasiko ziren horren inguruko hurbilpenak egiten; harekin zetorren 'hutsa' kontzeptua ez zen guztiz ekarriko.

Gainera, milurtekoaren aldaketa hartan gertatutako munduaren ikuspegi aldaketa ere ezagutuko dugu protagonistaren ibilbideari jarraiki. Honek

guztiak gure milurteko aldaketak ekarri dizkigun gorabehera teknologiko eta kontzeptualekin zerikusia du, jakina.

Jakin-min handiko gazte bat aurkeztuko zaigu hasieran, ezagutzeko eta ikasteko gose handia zuena, eta bere hil arteko bidaia fisiko, intelektual eta sozialaren berri emango zaigu, Aita Santu bihurtu artekoa izango dena.

Lan honetan agertzen den zenbait kontzepturen bidez zertzelada batzuk aurreratuko ditugu saiakera filosofikoari begira. "Teknologia ez da neutroa, ez da erreminta edo euskarri huts, pertsonen arteko komunikazioa eta gizartea bera moldatzen dituelako", irakur dezakegu. Egileak etorkizunari begiratzean makina eta gizakiaren arteko sinbiosiarekin batera sozializazioa eta kultura ere kontuan izan behar direla azaltzen

du. Enpatia, arreta edo intentzioa aipatuko ditu eta adimena, kontzientzia edo existentzia ere agertuko dira. Era berean, zeroa eta hutsa kontzeptuen inguruan jarduten du eta hilezkortasunaren ideal humanista muturrera eramateak humanismoari amaiera ekar diezaiokela dio, *Homo Deus*-aren agerpenarekin.

Reincidentes musika taldeak *La historia se repite* kantatzen zuen XX. mendearen amaieran eta horrela hasten da liburu hau: "Ziklikoa ei da historia". Aitor Zuberogoitiak *Jakin*-ekin argitaratu berri du *Zero. Transhumanismoa ate-joka Erdi Aro berrian*. Lan honetan etorkizunari buruz gogoeta egiteko proposamena egiten zaigu, iraganari begiratu. Izan ere, esaera zaharrak dioten moduan, atzeak erakusten du aurrea nola dantzatu. ●



MUSIKA

Faxismoari kontra beti eta bortizki



ANTIFA HARDCORE

LEE-KORE + HOBEN

AUTOEKOIZPENA

IKER BARANDIARAN

Tamalez ez da ohikoa Arrasaten hardcore kontzertuak egitea, bestelako musika eszenak nagusitzen direlako. Hala bada, joan den larunbatean herriko gazte batzuen ekimenez horretarako parada izan zen Gaztetxean. Bost talde igo ziren agertokira eta doinu gogorak eta metaleroak nagusitu ziren. Horien artean, lerrootara ekarri ditudan bi talde: Zumaiaiko Hoben eta Oñatiko Lee-Kore. Ez nuen ez bata ez bestea ezagutzen, eta sorpresa ederra izan zen biak, deskubritzea aurreiritzik gabe, zuzen-zuzenean eta gordinean, haien esentzian.

Lee-Kore-k batez ere harritu ninduen mezuaren irmotasunagatik, nondik gatozen eta zer garen gogorin aldarrikatzea-

gatik eta duen indarragatik. Eta Hoben taldeak *thrash* sinesgarri eta zinezkoa egiteagatik, teknikagatik eta indarragatik. Biak ala biak, Euskal Herriko undergroundean aritu eta gauzak oso argi dituzten trebatutako bi talde interesgarri.

Hala, ahots grabeagoa eta harcoretik *crust* zein *death*-era hurbildu eta tarteka rapeatzen duen Lee-Kore basapiztiak; eta *thrash* bortitzenaren sasikume izanda harago doan Hoben laukote zumaiaarrak indarrak batu dituzte "mundu mailako faxismo eta eskuin muturraren gorakadaren aurrean euskarri kultural hau sortzeko, zeinek eragin nahi duen pentsamendu eta praktika erreakzionarioen aurka kontzientzia duten horiengan".

Emaizta *Antifa hardcore* izeneko

partekatutako disko hau da, 24 minutu intentsotakoa. *Antifa hardcore* izeneko kantua bi ahotsetara abestutako hardcore-metalero pisutsua da, bi taldeek batera interpretatutakoa. *Zuen ordua iritsi da* crustean zein Anestesiaren eremuatan barneratzen den metal pisutsua. *Frente a frente* ia doinu industrialetan amiltzen den thrasha, tarteka rapeatua. *Ezin dutena isilarazi* tenpo erdiak eta *death*-aren mugak uztartzen dituen pieza guturala. *Gure historia* Slayer eskolara joan zeneko proba. Eta, azkenik, *Amorru oihuak*, KOP talde kataluniarra inspirazio eta iturri hartuta, bizirik gaudela taldean oihukatu eta abesteko nolabaiteko metal "dantzagarriagoa", koroak ere badituen, baina balekoa, jakina. ●

Italo Calvinok adimen artifizialari buruz eman zuen abisua

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

Problema ez da adimen artifizialarekin liburuak idaztea. Problema da horrela egindako liburuak irakurtzeko prest dagoela jendea. Presaka hartutako apunteetan hitz horiekin agertzen zait Rosario Villajos idazleak duela hilabete Bilboko Gutun Zuria PRO jaialdian esandakoa. Berriz etorri zait gogora ze, adimen artifiziala hau eta adimen artifiziala bestea, ematen du kazetari nagi samarrak kafe makinatik urrundu eta zeozer egiten jartzeko *gaia* aurkitu dutela medioetako erredaktore-buruek azkenaldian. Eta irakurleak pagatzen du, klaro; konkretuki zuek zerbitzatzeko dagoen honek, dena ipurtzuloz gora jarriko duen fenomeno teknologikoari buruzko *clickbait* horietako batek arrantzatutu bainau aste honetan: “Hauek dira Adimen Artifizialaren arabera zaharkituta geratu diren hiru unibertsitate-karrerak”.


Sorpresaren bila sartu naiz notizian, ez dizuet gezurrik esango: ea Arkitektura-fakultatean oina jarri bezain laster Le Corbusierren haizeekin ibiltzen hasten diren horiek pixka bat bajatzen dituzten; ea Medikuntzako listomarien aldetik karrera osoan jasandako burlak bueltatzeko moduan nagoen; ea Ingeniaritzako burmuin crossfitero horiek diren orain makinekin ordezkatzeko dituztenak. Kaka lehorra: Kazetaritza izango omen da algaretera joango den karreretako bat –besteak: Zuzenbidea eta Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza–. Eta esango nuke harmailak zoramez hartuko duela berria, gainera. Ze, kiroltasun osoz eta gargentasun

demokratikoz esan behar da, ez direla hauek munduko ofiziorik maitatuena. Jeneralean, aipatzen badira, hankapean hartzeko izaten dela. Eta, munduak, oro har, bake eta maitasun unibertsalaren helburua irudikatzen duenean, kazetari-rik, abokaturik eta enpresaririk agertzen ez den pelikula daukala buruan.

Nolanahi ere, beste kontu batengatik ekarri nahi nuen asuntu hau eta dagoneko hasi naiz endredatzen. Nik idazkeraz hitz egin nahi nuen: kazetari-rik, abokatuek, enpresari-rik ekoiztutako testuez. Benetan norbait harritzen ote da jakinda makina batek berdindu de-

zakeela ofizio horietan ari direnen jerga kaltzifikatua? Italo Calvino sumatzen dut barrez bere hilobi toskanarretik: “Abokatuek eta funtzionarioek, ministroetako kabineteek eta administrazio-kontseiluek, egunkarien eta telebistako albistearen erredakzioek, antilinguan idazten, hitz egiten eta pentsatzen dute. Antilinguaren ezaugarri nagusia da nik «terrore semantiko» gisa definituko nukeena, alegia, bere horretan esanahia daukan edozein berbari ihes egitea, ‘botila’, ‘berogailu’ edo ‘ikatz’ hitz lizunak balira bezala, ‘joan’, ‘aurkitu’ edo ‘jakin’ aditzek ekintza lotsagarriak adieraziko balituzte bezala. Antilinguan esanahiak etengabe bazterten dira, bere horretan ezer esan nahi ez duten edo zer bait lauso eta ulertezina esan nahi duten hitzen perspektiba batean zokoratuta”.

Abokatuak, administrazio kontseiluak, erredakzioak. 1965etik geunden abisatuta, baina enteratu zirenen artean behintzat, guztiz gehienek pentsatu zuten kontu hauek literati diletanteen ohiko espantuek besterik ez zirela. Eta orain, hara, denak dardarka haizeak daramabilen orbela bezala, OtsoaGPT datorrela-eta. Hainbeste urtez bizi izan gara irakurtzea eta idaztea etengabe debalatu dituen kultura batean, hain gutxi kezkatu gara pertsonen roboten antzera egindako testuez, hain automatizatuta dauzkagu inguruko guztiaz jabetzeko mekanismoak, ezen orain, robotak pertsona imitatzen ikasi duenean, ez baitakigu ezta ardi elektrikoekin amesten duten androideak ote garen ere. ●



PROIEKTUAREN ERAGILEAK

æk
korrika



MIROKUTANA

JALGI HADI!

DOKUMENTALERAKO
CROWDFUNDING KANPAINA

**EUSKARA BIDEGURUTZEAN DA
ETA EUSKALTZALEOK BERPIZKUNDEA ABIATUKO DUGU,
GURE HIZKUNTZAK ETORKIZUNA IZAN DEZAN.**

Korrikak lotzen dituen zazpi lurraldeetan zehar, gure hizkuntzaren
iraganari, orainari eta etorkizunari buruz hausnartuko dugu.

CROWDFUNDING



GOTEO.ORG

JALGIHADI.EUS





Podcast berria

Galdera basatiak

Beti haurrak al gara galdera
existentzialen aurrean?

Iñigo Martinezen podcasta 

Apirilaren 6tik aurrera,
igandero **argia.eus**-en.



 [ARGIA.eus/podcast](https://argia.eus/podcast)